

hh
hik hasi

110

5 EURO • 2006KO UZTAILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



VII. Hik Hasi Udako Topaketak

OPORRETAKO IRAKURGAIAK

LEHENENGO MAILA



BIGARREN MAILA



HIRUGARREN MAILA



LAUGARREN MAILA



BOSTGARREN MAILA



SEIGARREN MAILA



aurkibidea

5 editoriala

8 Ahozkotasuna

10 Nola landu elkarbizitza

12 Ikas-estiloak eta ikas-estrategiak

14 Dibortzioa eta eskola

16 Harremanak gelan

18 Adimen emozionala

20 Coaching

22 Heriotza heziketan

24 Ordenagailu gelara? Zertara?

26 Publisher

28 Photoshop

30 Linux

34 Blogak irakaskuntzan

36 Bideoa

38 Idazketaren didaktika baterantz

40 Ipuinak irakurtzen eta kontatzen

42 Disgrafiaren diagnostikoa eta tratamendua

44 Antzerkia

46 Psikomotritatearen lehen haurtzaroan

48 Haur txikiaren behaketa psikomotritate praktikaren ikuspegitik

50 Jolas kooperatiboak

52 Birziklatuz sortu

54 Musikaren esku-hartzea Hezkuntza Berezian

56 Musikoterapia

58 Biodantza

60 Haurrentzako masajea

62 Arratsaldeetako saioak

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaño, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazio: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: VII. Udako Topaketak (TRAM•Grafik). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2006-VI-21). Kopurua: 5.000 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

S J ITZ G I V SC



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskararen Normalkuntzarako
Zuzendaritza Nagusia



Donostiako
Udala

Harpidetza orria



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararazten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxa: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

uztaila

650 lagun bilduko gara topaketetan



Kalitatezko ikastaroak eskaini nahi ditugu: hau da, euskaraz, heziketa lanerako interesgarriak, baliagarriak eta osagarriak, elkarren artean topatzeko aukera ematen dutenak eta parte-hartzaileen motibazioa piztuta mantentzen dutenak.

VII. Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak ditugu aurtengoak. Uztailaren 4, 5 eta 6an Donostian bilduko gara beste behin; batzuk ordenagailuak hobeto maneiatzen ikastera, beste batzuk gorputza astintzera musikaren, masajeen edo jolasen aitzakian, beste hainbat buruari buelta batzuk ematera elkarbizitza, harremanak edota norberaren prestakuntza hobetzeko asmoz. Eskaintza zabala da, gai askotarikoak daude, beharrak ere hala baitira.

Ahal den neurrian eskaera horiei erantzuten saiatzen gara kalitatezko ikastaroak eskainiz. "Kalitatezkoak". Aipatu dugu hain modan dagoen kontzeptua. Baina, zer da kalitatezkoa izatea? Ez dago definizio eta ikuspegi bateraturik hitz horren azpian, bakoitzak bere erara ulertzen eta interpretatzen du. **hik hasi** rentzat horren azpian ezaugarri jakin batzuk daude.

Hasteko, heziketa lanerako interesgarriak, baliagarriak, osagarriak eta be-

rritzaileak izatea. Etengabeko prestakuntzak eguneroko lanarekin eta beharrekin estuki lotuta egon behar baitu.

Bigarrenik, euskaraz izatea. Euskaraz ari direnentzat, hori gabe ez dago benetako kalitaterik. "Euskal labeldun" ikastaroak dira gureak, UEUrenak bezalaxe. Horregatik egin dugu aurten elkarrekin udan euskaraz ikasteko deia. Euskararen normalizazio prozesuari begira eta eskolak zein unibertsitateak euskalduntze aldera, funtsezkoa da bertan arituko diren profesionalak euskaraz formatzea. Horretarako aukera ematen dute ikastaro hauek. **hik hasi** eta UEUren artean 55 ikastaro eskainiko dira aurtengo udan.

Bada kalitatearekin lotzen dugun beste ezaugarri bat ere: topagune izatea. Bakoitza bere ikastarora sartu eta ahalik eta etekinik handiena ateratzeko joera dago, eta ongi dago. Baina **hik hasi** ko topaketen eskaintza ez da horretara mugatzen. Gela guztietako partaide-

ak kontatzen hasita, 650 lagun bilduko gara. Denak heziketarekin kezkatutakoak, heziketa lanean dihardugunak. Non topatuko dugu plaza hoberik gure kezkak partekatzeke, esperientziak trukatzeko, adiskide zaharrak agurtzeko, lagun berriak egiteko...? Aprobetxa ezazue abagune hau, mereziko du-eta. Hori ere etengabeko prestakuntza da. Kalitatea da, bizitza kalitatea.

Aipatu ditugun ezaugarri horiei denei beste bat erantsi behar zaie: parte-hartzaileen motibazioa. Eta hori ere badute topaketa hauek. Urte urte ikusten dugu: interes handiz, gogotsu, animatuta eta umorez ikusten zaituztegu. Ikastaroetako emaileek ere behin eta berriro azpimarratzen dute agertzen duzuen interesa eta gogoia. "Luxuzko ikasleak" zarete. Poza ematen du hori ikusteak. Horregatik, argi eta garbi daukagu merezi duela 650 lagunentzako edo gehiagorentzako ikastaroak antolatzeke lana hartzeak.

Hezkide, hezkuntza mugimenduko kide



hezkide: hezkuntzako kide

Ikasleak, irakasleak, gurasoak, bestelako herritarrak... milaka eta milaka gara hezkuntzaren inguruan aritzen garen lagunok. Gure lanbidea delako, gure seme-alaba bertan dagoelako edo ikasten ari garelako, asko gara hezkuntza esparruarekin harremana daukagun abertzaleak. Horiek bildu nahi ditu, hain zuzen ere, hezkide-sareak.

hezkide: hezkuntza sistema propioaren aldeko kide

Euskal Herriak bere hezkuntza sistema propioa behar du, dituen erronka sozial, kultural eta ekonomikoei aurre egin ahal izateko. Gainera, Herri bezala dagokigun eskubidea da. Ideia horrekin bat datozen lagunei hezkide izateko gonbidapena luzatzen diegu.

hezkide: hezkuntza mugimenduko kide

Geure herriak behar duen hezkuntza eredua eraikitzeko urrats asko eman ditugu euskaldunok azkeneko hamar-kadetetan. Espainiar eta frantziar estatuak hamaika oztopo ezarri badizkigute ere, herri mugimendua hezkuntza tresna eta proiektu propioak martxan jartzeko gai izan da. Eta urrats berriak emateko garaia da. Herri bakoitzeko hezkuntza beharretatik abiatuta, hezkuntza sistema propioaren aldeko mugimendua sortzea, horra hor Euskal Herriak Bere Eskolaren erronka. hezkidea hezkuntza mugimendu horren parte da.

eskaintzen dizuguna:

- Hezkuntza esparruko kide bezala, hezkuntza sistema propioaren aldeko hezkuntza mugimenduko kide izatea.
- Egiten ditugun ekimenen eta proposamenen berri zuzenean jasotzea, bi hilean behin kaleratzen dugun HEZ-BERRI aldizkariaren bidez.

eskatzen dizuguna:

- Zure ekarpen politikoa. Hezkuntza sistema propio baten aldeko lanean, guztion ekarpena da garrantzitsua. Dituzun kezka eta iritziak kontuan hartu nahi ditugu. Ekarpen, kezka eta iritzi horiek helaraztea eskatzen dizugu.
- Zure ekarpen ekonomikoa. Hezkuntza sistema propioaren aldeko mugimendua egituratzeko dirua ere beharrezkoa dugu. Arlo honetan zure ekarpena eskatzen dizugu. Hona hemen aukerak:

nola egin hezkide:

1. Beheko laukitxoak bete eta guri helarazi, zure herriko EHBeko kide bati emanaz edota honako helbide honetara bidaliz: Amaia zentroa. Benito Perez Galdós z/g, GASTEIZ.
2. Hilabeteroko ekarpen ekonomikoa jasotzeko bi bide daude: laukitxoan kontu korrrontea jartzea (eta gu arduratuko gara bankuari agindua emateaz) edota bankuari hilabeteko kuota honako kontu korronte honetan sardez agintzea: 3035 0106 16 1061078128

IZENA:	ABIZENA:
IRASILEA	IRARASILEA
IKASTETXEA:	HERRITARRA
HELBIDEA:	HERRIA:
POSTA ELEKTRONIKOA:	
DIRU KOPURUA:	<input type="radio"/> 2 euro <input type="radio"/> 5 euro <input type="radio"/> 10 euro
KONTU KORRONTEAREN ZBK.a:	



www.hikhasi.com



Berriak . Materialen salmenta . Udako
topaketak . Kontaktuak . Harpidetza .
Aldizkaria on-line .

Ahozkotasuna

Ahozkotasuna eskolan lantzeko metodoa



Andoni EGAÑA

BERTSOLARIA



Joxerra GARZIA

EHuko IRAKASLEA

Gaur egungo gizarte aurreratu-abe-ratsak aztertu dituzten ikerlariak aho batez aitortzen dute ahazkotasunak (ahoz modu eraginkorrean komunikatzeko gaitasunak) gero eta garrantzi handiagoa duela, eta ez jardun esparru jakin batzuetan soilik, jardun esparru guztietan baizik.

Eskolan, ordea, eta salbuespenak salbu, apenas eskaintzen zaion arretarik kontu, itxura guztien arabera ezinbesteko, horri. **Ikasleak mundurako prestatzea baldin bada eskolaren zeregin nagusia, ezin esan, beraz, zuzen ari denik ahazkotasunari dagokion alorrean.**

Idatzizkoan ere, zuzentasunaren ikuspegia lehenesten du ia beti eskolak, egokitasunaren kaltetan. Gauzak horrela, gaude hezkuntza sistema erroretik irauli beharra dagoela. Egin beharreko lanaren eredu izan nahi luke ikastaro honetan aurkeztu nahi dugun metodoak.

Gurea ez da bertsolaritza lantzeko metodoa, baina bat-bateko bertsoak hartzen ditugu abiapuntutzat. Alde horretatik, ezinbestekoa da bat-bateko bertsogintzaren oinarri nagusiak eza-gutzea. Besteak beste, bertsolaritzaren alderdi erretorikoaz jabetzeko. Eskolak ikasleen ahazko komunikazio gaitasuna landu eta bermatu nahi badu,

ezin dezake alhora utzi gure gizartean ahazko komunikatzen arrakasta gehien lortu dutenen jardun eredugarria. Gainera, bertsoa neurri-neurriko diskurtsoa da, eta lanketarako ezinago egokia. Aurkeztuko dugun metodoa zortzi urteko lanaren emaitza da, eta birritan probatua dugu, aplikazio esperimentalen bidez, hainbat eskoletan.

Aplikazio esperimental horietan dagoeneko probatuak ditugun hainbat unitate didaktikoren azalpen praktikoa (aplikazioaren simulazioa) izango da ikastaroaren ardatz nagusia, unitateok behar bezala ulertzeko (eta berriak sortzeko) ezinbestekoak diren erreferentzia teorikoekin batera.



Eskolan
ahozkotasuna
lantzeko metodo
bat aurkeztuko
dugu
ikastaroan.

Ez da
bertsolaritza
lantzeko meto-
doa, baina bat-
bateko
bertsoak
hartzen ditu
abiapuntutzat.



Nola landu elkarbizitza

Nola landu elkarbizitza Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan



Xabier ITURBE

HEZKUNTZA ZIENTZIAN DOKTOREA ETA FILOSOFOA



Iñaki KARRERA

EHUKO PEDAGOGIA FAKULTATEKO IRAKASLEA



Mapi URRESTI

PSIKOLOGOA ETA TERAPEUTA

Neska-mutilen arteko elkarbizitza, dagoeneko, garrantzi handia hartu du heziketan. Azken mendean, giza mugimendu eta eragile askotarikoen indarrez, emakumezkoen eta gizonezkoen bizimoduak aldaketa nabariak jasan izan ditu. Aldaketa horiek nabarmentki azaldu dira esparru konkretu batzuetan; adibidez, lan esparruan emakumezkoen parte-hartzea izugarri handitu da, baina baita eguneroko bizitzan edota pribatuan ere.

Esan beharrik ez dago gure eskolatan neska eta mutikoen arteko arteko rola edo paperak etengabe aldatzen ari direla. Gure ustez, egoera berdintsura ailegatzeko oraindik pauso asko eman behar badira ere, ezin dira ukatu azken urteetan ibilbide honetan jorratutakoak.

Egia esan, heziketa munduan aspaldidanik hartu da elkarbizitzaren ibilbidea hori, baina ez da erraza, eta tamalez, curriculumaren eraginez, gizakien arteko emozioak, sentimenduak eta harremanak bigarren mailako eduki mota bihurtzen ari dira gure geletako eguneroko jardunean.

Baina bilakaera hau ez da egungo gizarteak, ezta egungo eskolak ere, jarraitu nahi duen ildo. Alderantziz, gaurko gizarteak gero eta ozenago aldarrikatzen du pertsonen arteko balio aldazina bizitza orekatu bat gauzatzeko orduan. Zeregin honetan hezkidetzatza, sexualitatea, eta emozio eta sentimenduen hezkuntza lagungarriak izan daitezke.

Horrela, zenbait autore norberarekiko adimenaz, pertsonen arteko adi-

menaz, edota adimen emozionalaz hizketan hasiak dira. Horrekin batera, gizakia aspaldi ohartu da “giza berdintasunak” daraman balioez. Gizaki izateak berdintasuna eskatu eta ezartzen du pertsona garenon artean. Giza berdintasun orokorra balio unibertsalean islatzen da eta horiek izan behar dute ardatz eskolan eta gelan sortzen diren harreman eta egoera desberdinetan. Horregatik, “eskola antolaketak” izugarriko indarra hartzen du, guraso, ikasle eta irakasleen arteko harreman eta zereginak birplanteatuz eta eskola komunitatea beste ikuspegi batetik jorratuz. Azken finean, eskola inklusibo eta demokratikoaren ildo sakonduz.

Berdintasuna ardatz gisa hartuz, “aniztasuna”ren miraria berdintasun honen aberasgarri suertatzen da. Ani-



tza da bizia eta anitzak gara gizakiok. Pertsona bakoitzak bere desio, sentimendu eta gorpuzkera berekoia dauka eta horrek erakarri eta sortzaile bihurtzen gaitu. Horregatik, ezinbesteko erronka da eskolarentzat aniztasuna errespetatuz esan dugun eskola inklusiboa eraikitzea, horixe baita aberastasuna eta konplexutasuna lantzea, edozein giza egoerak dituen ezaugarri nabarienak, hain zuzen.

Esandako guztiagatik, elkarbizitzarako edozein programak goian aipaturiko alderdiak landu beharko litzuzke.

Horregatik, proposamen hau ondoko hiru esparru nagusitan banatua aurkeztuko dugu. Lehenik, gizartean emandiren aldaketak kontuan hartuz, eskolaren egitura-antolaketarekin lotura duten ekimenak landuko ditugu, batez ere "ikas komunitateak" izenarekin ezagutzen ditugunak. Bigarrenean, herritasunaren hezkuntza eta gatazkak bideratzeko proposamen desberdinak jorratuko ditugu. Elkarbizitzak ezinbestean gatazkak sortu ohi ditu eta horiek ekidin baino, bideratzen eta gainditzen lagundu eta trebatu behar gara.

Azkenik, emozio eta sentimenduen mundua aztertuko dugu, batez ere inguru eta egoera esanguratsuenetan kokatuz. Eta osatzeko, gure ustez garrantzitsua den "pertsona sexutua" ren ikuspegia ere landuko dugu, neska-mutilen arteko harremanak nekez uler ditzakegulako sexualitatearen erroko garrantzia kontuan hartu gabe. Azken finean, sexua, edo hobeto esanda, pertsona sexutuaren sexualitatea da elkarbizitzako muina, "berdintasunean aniztasuna", alegia.



Ikas-estiloen eta ikas-estrategien



Iñaki PIKABEA

EHuko FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIAN

FAKULTATEKO IRAKASLEA

Zein da metodorik onena ezer ikas-teko (hizkuntza bat, Matematika...)? Eta irakasteko? Metodoaren kontzeptua izan da nagusi eduki ororen didaktikaren historian. Irakasleok, gaur egun, jakin badakigu arrakasta edo porrota ez dela bereziki metodo-arazoa, pertsona-arazoa baizik. Eta pertsona esaten dugunean, bere osotasunean ari gara: gaitasuna, motibazioa, nortasuna, jarrera, ezaugarri kognitiboa, estrategia... Azken batean, *metodoa* urrutiko lagungarri bat besterik ez da-eta. Hortik sortu dira ikerketa-bide berri batzuk, besteak beste, ikaslearengan ardaztutako irakaskuntzan (Rubin eta Thompson, 1988; Oller eta Richards, 1973). Horrelako planteamenduek hainbat fenomeno hartu dituzte kontuan: adina, jarrerak, motibazioa, nortasuna, ikas-estiloa, ikas-estrategiak, etab.

Candlin-ek (1991) garrantzi handiko honako galdera hau azpimarratzen zuen: *nola eta zergatik* ikasle batzuek

ikastea lortzen duten, eta beste batzuek, aldiz, oso gutxi. Esan liteke galdera horrek kezka aldatu egin dituela: edukien transmisio egokia bilatzetik, ikasleak zeozer bereganatzeko behar dituen trebetasun eta estrategia egokiak bilatzera. Beraz, metodologiaren nagusitasunetik psikologia kognitiborengana nagusitasunera pasa gara. Eta zerbait aztertzeke garaian, *ikuspegi integrala* izatea ezinbestekoa da. Gure kasuan, ikuspegi orokor honetan, bereziki honako kontzeptu hauetan jarri dugu arreta: *ikas-estiloetan eta ikas-estrategietan*.

Ikuspegi integralean kokaturik, ikerketa bat gauzatu nuen, bereziki bi erronka izan zituen: aztertzea, ikaslearengan ardaztutako irakaskuntza abiapuntutzat harturik, euskara-ikasle helduen artean H2 ikastean, ikas-estiloak eta ikas-estrategiak esplizituki aintzat hartzen zituen metodologiak zer-nolako eragina izan zezakeen ikaslearen

motibazioan, autoestimuan eta euskararen erabileran eta, bide batez, esku-hartzeko programa pedagogiko bat erakitzeko, ikerketa horretako emaitzak kontuan harturik. Ikerketa horretako emaitzak aintzat hartuta, egoki ikusi dut bertako zenbait atal beste hainbat esparrutara ere zabaltzea, aplikagarri izan daitezkeelakoan, ez soilik hizkuntza-ikasuntzaren esparruan.

Ikastaro honetan ez gara ikas-estiloetan eta ikas-estrategietan aditu bihurtuko, ez baitago horretarako behar adinako denborarik. Hala ere, badugu asmoa bi esparru horien garrantzia ikusarazteko eta ikuspegi zabal samarra eskaintzeko. Irakasle aditu askoren kasuan, aurrez ezagun zituen ideia eta susmoak berraztertuko dira, edota esperientziatik jasotako jakinduriari azalpen teorikoak erantsiko zaizkio. Bide batez, hainbat ariketa-eredu ere eskainiko dira, etorkizunean nork bere lanean egokitzeke eta burutzeko.



Nola eta zergatik lortzen dute ikasle batzuek ikastea, eta beste batzuek, aldiz, oso gutxi? Edukiez gain, ikasleak ezer bereganatzeko behar dituen trebetasun eta estrategia egokiak daude horren azpian.



Dibortzioa eta eskola

Banaketa kasuetan, jokatzeko irizpideak



Izarne FERNANDEZ, Pilar LEGARRA, Nilda S. GORVEIN
eta Monika SARALEGI

CIM BITARTEKARITZA ZENTRO INTERDIZIPLINARREKO KIDEAK

Banaketak sortzen dituen aldaketak mingarriak dira helduentzat, eta are larriagoak seme-alabentzat. Haur baten bizitzan oso zati garrantzitsua da bi edo hiru urteko ezegonkortasuna eta larrimina, batez ere txikia denean.

Dibortzioak haurren eragiten duen inpaktuan garrantzia duena ez da soilik adina; zoriontasunik ezak, ziurgabetasunak eta egonkortasun emozionalik ezak ondorio larriak, eta askotan atzeraezinak, ekar ditzakete haurren osasun fisikoan eta psikikoan.

Banaketak familia egitura aldatu egiten du, haurrak gurasoetako bate-

kin gelditzen baitira elkarbizitzen. Orokorrean, haurren sozializazio prozesuak errazten dituen oreka hori galtzen denean, arrisku bat sortzen da: banaketa prozesuak modu egokian ez burutzeara.

Banatuak gurasoen seme-alabei gehiago kostatzen zaie egoera itzulezina dela onartzea aita edo ama hil zaien haurrei baino. Adiskidetzearen fantasiak sortzen dira haurren psikearen sakonean, eta sarritan ez dira desagertzen eurak gurasoengandik bereizi eta etxetik alde egiten duten arte.

Gaizki eramandako banaketa ba-

ten ondorioak, askotan zera bihurtzen dira: delinkuentzia jokabideak, jokatze desbideratuak, ikasteko zailtasuna, gehiegizko sentsibilitatea, edota senideekiko eta orokorrean bere inguru guztiarekiko harreman txarrak.

Bestalde, haur eta nerabe askok banaketaren aurrean izaten duten erreakzioa “estresdun haurrak” gisa izendatu da. Egoera horrek nahi ez diren portaerak sortzen ditu.

Nerabezaroan, nerabeak guraso baten aurka jar daitezke aurrez aurre. Bata zoritxarreko ikusten dutela esanez, bestearen alde jartzen dira. Guraso



lerrokatzearen sindromea oso ohikoa da gaizki eramandako banaketetan, eta seme-alabengan izan ditzakeen ondorioak oso larriak dira.

Banaketak familia egituraren kolapsoa dakar, eta haurrak bakarrik eta beldurtuta sentitzen dira. Une horretan garrantzitsua da profesional egoki baten esku-hartzea.

Eskolatik, profesionalek orientatu eta lagundu egin dezakete ikasleonek adierazpen ezkorrei aurrea hartzen, gatazka horiei aurre egiteko baliabide egokiak hartuz gero.

Haur hauek besteengandik desberdinak dira, baina horrek ez du esan nahi beste kategoria batean sartu behar direnik, baizik eta banaketaren ondorioz bizitu duten esperientzia kontuan hartu behar dela.

Beste behin ere, eskolako profesionalek erronka handi bat dute, familia arazoen eta dibortzioen aurrean babesa eman ahal izateko.

Horregatik, proposamen honek hordagoa botatzen die eskola erakundeek, beren ikasmila guztietan haur zein nerabe hauen sozializazio prozesuan lagun eta indar dezaten, betiere kontuan izanda ikasleok, gurasoen banaketa dela medio, familia haustearen esperientzia bizitzen ari direla edo bizi izan dutela.

Banaketa egoeran dauden aitei eta amei eman behar zaien informazioari dagokionez, irakasleek, zuzendariak eta eskolako gainerako kideek badute erantzukizun profesionala, eta gai hori ere landuko da ikastaroan.

Helburuak

Ikastaro honetan zera lortu nahi da:

- Esku hartzeko irizpide argiak eta zehatzak definitu, eskolak positiboki parte

har dezan banaketa gatazkatsuetan.

- Eskolentzat gai honen bueltan dagoen araudia ezagutu.

- Tutoreek eta irakasleek bizitzen dituzten egoera arruntenetarako, ekin-tza protokolo baten oinarriak planteatu, garatu eta definitu.

- Dibortzio gatazkatsuetan tutoreen eta irakasleen erantzukizunari eta inplikazioari mugak jarri.

Metodologia

Horretarako erabiliko den metodologia aktiboa eta parte-hartzailea izango da. Gutxieneko alderdi teorikoak ikusiko dira, eta gero hainbat kasu planteatuko dira aztertzeko. Diziplinarteko ikuspegia erabiliko da; hots, alderdi psikologikoa, juridikoa eta soziala aztertuko dira.



Harremanak gelan

Gatazkak, tratu txarrak... esku hartzeko moduak



Amaia AGIRRE

FORMATZAILEA, BITARTEKARIA ETA
GEUZeko PARTAIDEA

Ikastaro honen helburu nagusia irakasle eta ikasleen arteko harremanek eraikitzen dituzten espazio berriez mintzatzea da, non errespetua, onarpena eta elkar ulertzea bideratzen diren.

Gelako harremanez ari garenean, bizikidetzaz edo gatazken ebazpenez ari gara. Eskola, haurren garapen sozial, afektibo eta moralerako inguru egokia da, etengabeko ikasketa esparrua baita. Bertan ikasleak bere jokabideak, emozioak, trebetasunak, arauak eta abar praktikatzeko dituzte.

Ikaslearentzat ikastetxea eta, batez ere ikasgela, bere gizarte txiki bihurtu dira, hor landuko baititu bere gaitasunen garapena, trebetasun sozialak eta

parte hartzeko eta bestearekiko errespetuzko balioak.

Ikastetxean bizikidetzaz lantzeko eta giro egoki bat lortzeko, gatazken ebazpenean eta bake kulturaren oinarritzen den hezkuntza landu beharko litzateke. Horrek eskolan aldaketa sistemiko bat sortuko luke, eta ez soilik aldaketa kurrikular bat (Ramón Alzate).

Eskolan sortzen diren harremanak lantzeko, *Bizikidetzaz Eredu Global* bat proposatzen dugu. Eredu horrek, esku-hartze hezigarrian oinarrituz, eskolaren bizikidetzaz ereduaren aldaketa proposatzen du. Eredu horren helburua, gatazken eraldapen baketsuak eta aniztasunaren printzipioak ikastetxean

gertatzen diren harreman guztietan eragina izatea da. Eredu honek, prebentzio eta eraldaketarako ikuspuntua izanik, ikastetxeko elkarbizitzaren bost eremuetan du eragina: diziplina sisteman, curriculumean, pedagogian, eskolako kulturaren eta familian. Hori guztia burutzeko hainbat programaz osaturik dago: Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako gatazkak eraldatzeko curriculum programa, irakasleen prestakuntza programa, sendiaren bizikidetzaz programa, diziplina positiboa programa, gatazkak ebazteko lankidetzaz-prozedurak (bitartekaritza, negoziazioa, kontsentsu prozesuak...), programa psikosozialak (dro-



ga-mendekotasunen prebentzioa, berdinaren arteko erasoaren aurkako programa...), hezkuntza sozioemotionala eta lankidetzak ikaskuntza.

Ikastaro honetan bi esparru ukitu nahiko genituzke. Alde batetik, esku hartzeko programa psikosozial bat landuko da, berdinaren arteko erasoaren aurkako programa; eta bestetik, gatazkak ebazteko lankidetzak prozedura bat, bitartekaritza programa.

Pertsonen arteko harremanetan oinarrituta dagoen hezkuntza egoki bat lantzeko oso garrantzitsua eta beharrezkoa da ikasleari argi eta garbi agertzea indarkeria eta gehiegikeriazko jokabideak onartezinak direla, gatazkak konpontzeko desegokiak eta psikologikoki eta moralki mingarriak direla. Indarkeria fenomeno sozial eta psikologiko bat da; soziala, pertsonen arteko harremanetan garatzen delako, eta psikologikoa, parte hartzen duten perso-

na guztiengan eragin ezkorrak dituelako: biktimarengan, erasotzailearengan eta ikusleengan. Biktimek autoestimarengan eta autokontzeptuarengan narriadura sufritzen dute. Erasotzaileak ezkutuko kontzientzia batekin erlazionatzen dira, beren garapen soziopertsonalean eta moralean eragin handia izanik eta jokabide kriminaletara gerturatuz. Ikusleak ere moralki inplikaturik daude, eta beldurrezko eta erruzko sentimenduak izaten dituzte. Beraz, *bullying*-aren aurka esku hartzen duen programa batek, biktimak, erasotzaileak eta ikusleak kontuan izango ditu, denek parte hartzen dutelako eta indarkeriak guztiengan ondorio ezkorrak dituelako.

Bestalde, gatazka prozesu natural bat izanik, interes eta behar desberdinak daudenean gertatzen da, baina ez du beti indarkeria sortzen. Hori kontuan izanik, gatazkak konpontzeko hainbat lankidetzak prozedura daude; haien artean *Bitartekaritza* dago. *Bitartekaritza* programak partaidetzan, elkarlanean eta elkarriketan oinarriturik daude, eta horien helburu nagusia eskolan gertatzen diren gatazkak konpontzearena da.

Ikastaro honetan hemen aipatutako kontzeptuak eta lanildoak garatuko dira. Gai horiek lantzeko, esperientziak irakatsi digunari eta irakasle gehiengoak eskatzen duenari jarraiki, praktikasunean oinarrituko gara.

Adimen emozionala

Sentimenduak osatzen



Ibon DE LA CRUZ

PSIKOLOGOA

“Lehenengo aldiz gure buruari begirada adimentsuz so egiten diogun lekua da gure benetako jaiolekua...”
(*Hadrianoren oroitzapenak*, Marguerite Yourcenar).

Ongi etorri ikastaro honetara.

Ikastaro honetan, ziur aski, landu nahi dituzun gauza batzuk aurkituko dituzu, baina espero ez dituzun beste gauza batzuk ere bai.

Nire ustez, emozioen lanak praktikara zuzenduta egon behar du. Edo nork esaten duena sinestea ez da ikeritzeko modurik hoberena. Emozioak sentitu egin behar dira, eta besteen emozioekin lan egin baino lehen, prozesu emozional batzuk egin behar ditu norberak. Matematika ikasi ez duen matematika irakaslerik ezagutzen al duzue?

Emozioetara hurbiltzeko estrategia asko daude: guztiz intelektuala, negartia, mistikoa... Nire aukera umorea eta barrea erabiltzea da. Umorea ez da, normalean uste den moduan, denbora pasatzeko modu bat. Ongi erabiltzen badugu, gizartea eta geure burua eza-gutzeko tresna nagusietako bat da.

Horrek ez du esan nahi teoriarik egongo ez denik. Teoria beharrezkoa da jorratzen ditugun gaien nondik norakoa ulertzeko. Baina ikusten ditugun gai guztiak egiaztatu egin behar dira, bai jokoen bitartez, bai eztabaidetan, edota praktikoak diren beste modu batzuen bidez.

Gaiak landu eta frogatu ondoren, zerbait egin beharko da horrekin. Eta horaurkitzen dugu normalean gaindizina den arazoa. Emozioek ez dutela logika handirik pentsatu ohi dugu, baina

ez da horrela. Gertatzen dena da emozioek beren logika berezia dutela. Eta ez bagara “emozionalki” pentsatzeko gauza, ez ditugu gertatzen diren hainbat gauza ulertuko. Hona hemen adibide bat esandakoa hobeto ulertzeko:

Ikastaro hau oso-oso berezia izango da, gaur egungo gizartean tabu den edo debekatuta dagoen gai bat landuko dugulako: **eragite sena** edo **boterea**.

Konturatu al zarete ez dela botereari buruzko ikastarorik egiten? Agian, enpresa arloan, boterea nola erabili behar den lantzen da pixka bat. Baina hortik aurrera ezer gutxi. Emozionalki oinarrizkoa den gai bat da, eta inork ez daki zertaz ari garen.

Hona hemen bi baieztapen iraultzaile:



- Botere sena ongi ulertzen ez duenak, ez ditu giza erlazioak ulertzen.

- Botere sena ongi lantzen ez duenak, ongi bizitzeko zailtasun handiak izango ditu.

Itzul gaitzen logikara. Idatzi ditudan bi perpaus horiek gure eguneroko logikarentzat mingarriak dira, baina emozioen logikan, normalean egiten ditugun hainbat galdera argitzen dizkigute:

- Zergatik *bullying*-a?
- Zergatik hainbeste depresio irakasleengan?
- Zergatik da garrantzitsua edertasuna?
- ...

Ikusiko dugunez, mundu berri batean sartzen ari gara, eta kasu askotan, heziketa ikusteko modu berri batean.

Gaur egungo heziketa eredua gaitz dezakegu, baina praktikotasun osoz. Horretarako, ez dugu mugimendu **“utopiko”**etan sinetsi beharrik. Aldaketa sakonak egin ditzakegu eskuetan ditugun baliabideekin.

Egia esateko, eta kasu askotan, irakasleek profesionaltasun handia dute, datorkigun gizarte bereziari aurre egiteko nahikoa. Gertatzen dena da, arazoak ez ditugula ikuspuntu egokitik ikusten. Agian, kasu askotan, erantzuteko trebeziak gain, galderak egiteko trebeziak zorrotz beharko ditugu.

Hona hemen galdera zorrotz bat: “Zergatik ez erabili eskola irakasleen, ikasleen eta gurasoen bizitza benetan hobetzeko?”

Ikastaro hau probokatzaileria, dibertigarria eta aberasgarria izango delakotan, olerki txiki honekin uzten zaituztet:

“Ogi pixka bat aski du gorputzak kantuz hasteko. Egia puska bat ez du aski giza bihotzak, isiltzeko”.

(“Ortzia lorez, lurra izarrez”, JoxAnton Artze)

Konturatu al zarete ez dela botereari buruzko ikastarorik egiten?



Coaching

Pertsona eta erakundeen garapena eta aldaketarako laguntza



Mirari BEREZIARTUA

ALDAKETAPUNTUA COACHING ESKOLAKO KIDEA



Nerea REDONDO

ALDAKETAPUNTUA COACHING ESKOLAKO KIDEA

“Ikastea, dakizuna deskubritzea da. Egitea, badakizula erakustea da. Irakastea, beste batzuei zuk bezain ondo dakitela gogoraraztea da”, Richard Bach

Euskal Herrian une honetan dugun egoerak aukera ezin hobea eskaintzen digu erronka berriei aurre egiteko. Paradigma edo ikuspegi teoriko berriak aplikatuz, bide berrien saiakeretan murgiltzeko aukera dugu. Orain arteko emaitzak ez baditugu nahi, bidea aldatu beharra dugu, beste ondorio batera iristeko. Hori da, hezkuntzari dagokionez, guretzat erronka bihurtu dena. Gainera, Euskal Curriculum propioarekin konprometituta, barneko aldaketa

sakona eskatzen digu horrek guztiak. Nola aldatu? Hor dago *coaching*aren ekarpena: aldaketa emate horretan laguntzen digu.

*Coaching*a, pertsona bati edo talde bati laguntzeko modu bat da. Bakoitzaren gaitasun guztiak maila gorenean erabiltzeko parada ematen du. Horrek esan nahi du, pertsona edo talde horiei, beraien oztopo eta muga pertsonalak gainditzeko, coach gisa, bidea errazten laguntzen ikas dezakegula. Horrela, bakoitzak eman dezakeen onena nola eman deskubritzeko jardunbidea samurtu egingo diegu, eta taldekide gisa ere modu eraginkorrenak bideratzen lagunduko diegu, ikuspegi berri bat erabiliz. Horren arabera *coaching*ak,

arreta, jardunean adina, harremanetan ipintzea eskatzen du. Beraz, adimen emozionalari dagozkion abildadeak hartzen ditu kontuan bereziki.

Oztopoetan zentratzeko joera inertziaz erabili beharrean, helburuen lorpenean eta soluzioetan fokatzeko ikuspegia erabiltzen du *coaching*ak. Bere funtsa osotasuneko ikuspegian du.

*Coaching*ean “barneko joko” eta “kanpoko joko” bereizten dira. Timothy Gallwey garatutako kontzeptuak dira, eta bereziki kiroletan hasi zen aplikatzen. “Kanpoko joko” irabazteko, “barneko jokoaz” baliatzen laguntzea proposatzen du berak. Egoki jarduteko, barneko jokoaren funtsa, mentalki prestatzean datza. Hain zuzen ere,



egiten ari garen horretan ipintzen dugun fokatze mentala da “barneko jokoak”. Beraz, horrek kontuan hartzen du: jarrera, ziurtasuna (norberarengan edota taldearengan), modu eraginkorrean kontzentratzea, errakuntza eta presioa eramaten jakitea indar bihurtuz, eta abar.

Barneko eta kanpoko jokoak bateratzen direnean, jardunak dario. Oztoparen gainetik jariora dago. Horren adierazleak hauek izan daitezke:

- Kontzientziarekin jardutea. Egoeraz jabetzea barnera eta kanpora begira.

- Konprometituta aritzea jardunean. Arreta, modu bikain eta ederreko ekinean zentratua.

- Konfiantza osoa ipintzea norberarengan, nahi den helburua lortzeko.

- Ia-ia pentsatu gabe eta ahaleginik gabe, jardunak dario.

Adierazle horiek baieztatzen digute bi jokoak ondo loturik egiten gabiltzala eta osotasuneko ikuspegia dagoela gure jardunean.

Bidea modu horretan egiteko abildadeak ikasi egiten dira. Horretan trebatzeko aukera eskaintzen dugu “Aldaketapuntua *Coaching*” eskolan. Coachvilleren sistemarekin eskaintzen dugun bereizgarri nagusia horretan dago, *coaching* praktikoa eta egituratua izatean. Gure eskaintza egitura jakin baten bitartez trebatzean oinarritzen da. Egin nahi dugun aldaketarako jarduna eraginkorra izateko modu bat da.

William James psikologoak dioen moduan, “gure belaunaldiaren iraultza, gizakiak bere barneko jarrera mentalak aldatuz, kanpoko bizitzaren jorak aldatzea lor dezakeelajabetzea da”.

Euskal Herria eta ikaslea gure aldaketaren jomugatzat hartuz, merezi duen konpromisoa da, eta bai pertso-

nalki eta bai auzolanean modu desberdinean egiten ikasteko aukera dugu. *Coachinga* aldaketa errazteko bide berri bat da. Horretan lagun dezakegu, sostengua modu jakin batean emanez.

Arkimedesezkiezioen moduan, “emadazue sostengu puntu bat eta mundua mugituko dut”. *Coachinga* hori da, sostengu puntua ematea. Zuri dagokizu, hala nahi baduzu, mundua mugitzeko aukerak zabaltzea. Hezkuntzako munduak badu aldatu beharra, eta Euskal Herrian une honetan geure hezkuntza sistemarentz mugitzeko aukera dugu, ikuspegi berria erantsiz. Zuk sostengu puntu bat izan nahi al duzu?

XXI. mendeko lanbide berria da *coaching*, pertsona eta erakundearen garapenerako osotasuneko ikuspegia duena.



Heriotza heziketan

Gizarte hedonista eta nahigabea



Patxi IZAGIRRE

PSIKOLOGOA ETA PSIKOTERAPEUTA

Gizakiaren adimen emozionala, bizitza eta heriotza kontzientzia modura ulertzen dituz; hau da, gure bizitzan atseginarekin eta atsekabearekin gertatzen zaigunaren kontzientzia modura. Dena den, atseginaren aurrean gure hormonek irri egiten duten bezala, atsekabearekin beldurrak jota egon ohi gara.

Adimena esnatzeko akuilurik garrantzitsuenetakoa atsegina gerorako uzten jakitea da. Hobeto adierazten saiatuko naiz: txikiekin ahartzeko ogitartekoa jan arte itxaroten dakien neskatxak, badaki geroak ekarriko dion sarian konfiantza izaten eta itxaropena ere garatzen. Ahalegina baloratzen ikasten du eta lortu beharreko helburu batek ilusioa egiten dio. Hala, kasu batzuetan haurrek ulertzen dute igandea dela dendara joan eta litxarkeriak erosteko eguna. Jabetu gaituzten astegunetan litxarkeriak ez jatearen behin-behineko frustrazioaren onarpenak eskatzen duen eragiketa mentalaz, ezetza barneratu duelako "tratuaren" parte bezala (beti bete behar den tratua da hori, itxaropena konfiantza izatean dartzalako).

Esperantza itxaroteko gaitasun bezala ikusten badugu, ulertuko dugu gure gizartean bizi dugun ezinegona, atsegina berehala ez betetzeak sortua. Ezinegona nahia eta beldurra talka egitean sortzen den txinparta da. Beraz, bizi garen gizarte neurrigabeko hedonista eta kontsumitzailean, zer arraio egin nahigabearekin?

Zorionez, gizakiak mina gaintitze-ko sendagaiak garatu ditu, gure bizi kalitatea hobetu eta heriotza duina izan dezagun lagunduz. Saihestu dezakegun minak gure bidea arinduko du, kontua ez baita martiri bihurtzea jainkozko garbikuntza lortzearen. Dena

den, nire ustez nahigabe emozionala ere gogoan hartu behar da, erradiografia batean ikusten ez bada ere; nahigabe hori izango da ondorengo azalpenen ardatza.

Adierazgarria da, nahiz eta ehunetik ehuneko fidagarritasunez jakin hilezkoak gurea, nola ukatzen dugun heriotza, hilezkoak bagina bezala. Trafiko istripuetako estatistikak, tabakoaren eraginaz gertatzen diren heriotzak... begiratu besterik ez dugu. Hala-koak urrutian edota bizilagunari gertatzen zaizkiola pentsatzen dugu, baina inoiz ez guri. Garbi dago mingarria den zerbait saihestetik, haren izatea ukatze- ra pasa gurea, eta horra hor non eraikitzen dugun tabua. Ez dirudi, bada, gure aldetik oso jokabide argia denik hilezko kortasun aurreikuspenak sortzea, egokitze baliabideak gutxitzen baitizkigute (pertsonek garapenari lotuta dato-



Galera baten zentzuzko elaborazioak gaixoari krisiak gainditzeko gaitasuna eman diezaioke, pertsona hori desberdina eta indarberrituta ateraz.

zen galerak eta hoztasunak barneratzeko beharrezkoak ditugunak). Nahigabea gure itzala da, jaiotzatik bultzatzen gaituena eta azken bidaiari hartzen gaituena. Batzuen aburuz: “hondartzan hiltzean, itsasoan biltzen diren olatuak gara”.

Dolu elaborazioetan izan dudana esperimentzia profesionalean oinarrituta, ulertzen dut semea galdu duen guraso askoren helburua dela nahigabearekin bizitzen ikastea eta bizitzari zentzu berria aurkitzea. Gizarteak, ordea, ez du hain mingarria den nahigabea ulertzen, negar etengabea deserosoa egiten baitzaio, eta nahigabetua ondo ikusteko presa handia du. Zalantzarik gabe, norbere nahigabearen beldurra da sufritzen ari diren pertsonetatik urrunarazten gaituena.

Galera baten zentzuzko elaborazioak gaixoari krisiak gainditzeko gaitasuna eman diezaioke, pertsona hori desberdina eta indarberrituta ateraz. Dolu prozesuan zeharkatzen direnaldiak eta arimaren egoerak konplexuak dira lerro gutxi batzuetan jasotzeko, baina ausartuko nintzateke “koloreak argiaren sufrimenduak direla” esatera.

Gure nahigabearen kontzientzia hartzeak gure mugak onartzen erakusten digu, perfekzionismotik alde egiten, nork bere hutsunea onartzen... hilkorak garela jakiteak gizatiarragoak egiten gaitu. Kontua ez da nahi dugun guztia edukitzea, daukagun guztia nahi izatea da gakoa. Beharbada, era horretan ulertuko dugu ez garela gure amestetako erraldoia, baina ezta gure konplexuetako ipotxa ere.

Osasun psikologikoa barneko askatasun prozesutat jo dezakegu; bere bidez egiten diegu aurre irudimenezko mamuen esklabo bihurtzen gaituzten haur beldurrei. Maitasuna ez da tole-

rantzia pasiboa, maitasunezko alderaketa behar dugu. Besteek guri buruz duten aurreikuspenen arabera hazi eta hezten gara. Gure bizitzak zentzua du ikuspegi horiekin bat badator, eta hala ez bada, krisi existenziala gertatzen da. Orain da garaia lotsatzen gintuen hura barneratu eta berreskuratzeko. Horrela soilik gaindituko dugu bide-zulo hau; jada gure maskarek ez dute balio. Gure benetakotasuna jokoan dago. Izan zaitetz “gehiago bat” eta ez bat gehiago! Ez dago gure eskuetan atzera itzultzea eta ez beharra aldatzea, baina eskura dugu nahigabeari aurre egiteko modua. Gure jarreraren arabera, lorez betetako zelai batean kaka piloa aurkitzeko gai den euliaren modura jokatuko dugu edota, bestela, simaur soro baten erdian lorea aurkitzen dakien tximeletaren moduan jokatuko dugu.

Gaur gure seme-alaben hezkuntzan huts egin dugu “dena libre” delako lege hondagarriarekin, eta horrek ziurtasun eza ikaragarria sortzen die, zeren... non daude mugak? Nola irten egozentrismo nartzisistatik? Zapuzketa edo frustrazioa jasateko gaitasunak etorkizuna ilusioarekin eraikitzeak aukera ematen du. Argi dago gure gizartean gehiegi banatu ditugula atsegina-nahigabea bikotea. Nire ikuspegitik, bi aldeak elkartzeko behar dugun hari eroalea itxaropena da; hasieran nioen bezala, “itxaroteko gaitasuna”. Konfiantzak gure autoestimua handitzen du, gure pazientzia mantsotzen du eta, batez ere, benetan nahi dugunaz (merkantilismotik at) kontziente izaten laguntzen digu. Uneko frustrazioa gainditzeko duen etorkizuna ikusten ikasten dugu eta, horrela, objektua lortzean intentsitatez eta sari kutsuaz gozatzen dakigu.

Gogoan dut Anthony Hopkinsen

esaldi bat; *Tierras de penumbra* filmean agertzen zen (maitasunaren eta nahigabearen inguruan egina), eta horrela dio: “bizitzan bi aldiz suertatu zait erabakitzea: lehenengoa umetan, ama hil zenean, eta ziurtasuna aukeratu nuen. Orain gizona naiz eta nire kidearen heriotzaren aurrean nahigabea aukeratu dut, orain bai baitakit gaurko maitasuna biharko nahigabearen zatia dela, hauxe baita bizitzarekin egiten dugun tratua”.

Egin dezagun bizitzaren alde, eta ez bizirautearen alde!

Ordenagailu gelara? Zertara?



Fultxo CRESPO

VIANAKO ERENTZUN IKASTOLAKO IRAKASLEA

Inoiz, ematen ditudan ikastaroen inguruan galdetu didatenean, normalean zer programa “irakasten” ditudan jakin nahi izan dute euren burua kokatzeko. Nagusiki *Paint* eta *Word* programak lantzen ditudala entzundakoa, harridura edo interes eza izan da erantzuna. Beste batzuetan, *Paint* aditzean, zera esan didate:

- Baina programa horrekin oso gauza gutxi egin daitezke.

Edo beste hau:

- Zure ikastaroa hasiera mailakoa da, orduan, ia-ia ezer ez dakiten irakasleentzat.

Askotan, nire ekarpena benetan interesgarria izan den edo ez zalantzan jarri dut. Ez ote nuen Photoshop edo izen arraroa duen programa bat hartu, “JavaMegaKidPixKlik”, esate baterako, eta hura munduan barna zabaldu behar mesias berri baten moduan?

Konturatuko zinetenez, IKTen inguruko prestakuntza ehuneko handi batean programetan oinarrituta dago. Programak dira ardatza, irakasleek

programa asko menderatu behar dituzte; zenbat eta programa gehiago kontrolatu, hobe. Irakasle batzuk, IKTen inguruko jakin-mina ase nahian eta borondate onenarekin, ikastaro batean edo bestean izena ematen dute, programa bat ikasi, eta gero ez erabiltzeko. Agian programa ez delako eurek uste zutena, edo ez delako oso erabilgarria, edo ez dutelako programa erabiltzeko denborarik, edo euren ikastetxeko ordenagailuek ez dutelako hori erabiltzeko potentzia nahikorik...

Bestalde, IKTetan ere modaren menpe edo lilura teknologikoaren menpe bizi garela dirudi. Garai batean Klik zen ikasi beharrekoa, orain Linux edo blogak egiteko tresnak. Badakigu etengabe ari direla programak eta Internet bidezko zerbitzu berriak ateratzen, batzuk oso interesgarriak eta hezkuntzan aplikatzeko aukera asko dituztenak. Teknologia Berriak ziztu bizian aldatzen ari dira; gure eskolen eta ikastolen martxa, ordea, beste bat da. Hainbeste berrikuntzak zorabioa sor-

tzen dio irakasle ordenagailuzale pres-tuenari ere!

Itzul gaitezen lehen aipatutako *Paint* programara. Programa xumea, mugatua, ez oso erakargarria, alde batetik, baina eskola guztietan dagoena, bestetik. Xumea dela esan dut, bai, paperezko orrialde bat bezain xumea. Margolari batek orrialde eta arkatz bat besterik ez du behar margotzen hasteko, eta bi tresna horiekin maisulan bat egiteko gai da. Horrekin zera esan nahi dut: programak berdina zaizkigula. Margotzeko mila programa daude eskuragai: Tuxpain, KidPix, DrawPekes, Disney Studio... Batzuk doan lor daitezke eta beste batzuk ordaindu egin behar dira. Programak hor daude, eta horiek erabiltzen ikastea ez da batere zaila; horrek ez gintuzke kezkatu behar. Arduratu behar gaituena da programa horiekin egingo ditugun hezkuntza jarduerak, horien planifikazioa eta hezkuntza helburuekin izango duten uztarteta; baina horretaz gutxi hitz egiten da egiten ditugun ikastaroetan.




Kontua da, programa gelara eramaten dugunean, edo hobe esanda, ikasleak programarekin aritzeko ordenagailu gelara eramaten ditugunean, gauzak konplikatzan hasten direla. Berdin da programa zaila izan edo 3 urteko haur batentzat diseinatuta egon, problemak izango ditugu. Demagun, imajinatzea zaila bada ere, teknikoki dena primeran dabilela (ez egin barre, gerta daitezkeen zerbait da), eta gelakoekin marrazki bat egitera joaten garela ordenagailu gelara (zerbait erraza jartzeagatik), eta inon idatzi gabeko lege hau beteiko da: erotu egingo gara, eta arazo bat edo beste sortuko da, seguru. Adibidez: marrazkia inprimatzerakoan konturatuko gara, 21 ikasle izanda, marrazki guztiak inprimatzeko ordu erdia beharko dugula (eta 5 besterik ez ditugu izango), edo erraza zirudien programa ez dela horren erraza; eta ikasleek gure izena behin eta berriro errepikatuko dute laguntza eskatzeko (berdin izango zaie zu okupatuta egon edo ez), eta zure izena berrehun eta hamaika aldiz entzundakoan, hauxe pentsatuko duzu: zergatik ez ote dizkiet papera eta margoak eman marrazki madarikatu hau egiteko? (Batzuei beren gurasoek zergatik ez ote zuten beste izen bat aukeratu bururatuko zaie, bidenabar). Hori guztia saihestea erraza da, jarduerara behar bezala antolatzen bada eta gerta daitezkeen eta gertatzen diren hainbat arazo aurreikusten badira.

Programetan oinarritutako prestakuntza batetik, hezkuntzak dituen beharretan oinarritutako batera pasa behar dugu. Bestela, eskema berbera errepikatuko dugu gure ikasleekin: programen funtzionamendua erakutsi ganorazko ezer ez egiteko. Horretaz kexatu egiten gara gero irakasleok: testu prozesadorea edo Interneteko nabi-

gazioa menderatu bai, baina, gero, gure ikasleak ez direla gai testu on bat idatzeko edo egokia den formatua ipintzeko; eta denbora gehiegi pasatzen dutela izenburuaren kolore konbinazioa aukeratzen...

Bukatzeke, ez dugu ahaztu behar, IKTek ez dutela helburu izan behar, bidea edo, hobeto esanda, hezkuntza hobetzeko baliabide baizik. Garbi dago azken urteotan familia, irakasle, ikasle,

ikastetxe eta administrazioen aldetik arreta eta interes berezia jasotzen ari direla Teknologia Berriak. Dena den, denborarekin eta ordenagailuen erabileraren sistematizazioarekin batera, ordenagailuek "ikusezin" bihurtu beharko lukete. Ez lukete aldeko edo kontrako jarrera sutsurik sortu behar, geletan egunero erabiltzen ditugun arkatz, klarrion edo liburuak sortzen ez duten bezala. Hori noiz ailegatuko da?



Idazketa tailerretarako baliabidea



Mikel FERNANDEZ

IRAKASLEA ETA INFORMATIKAN ADITUA

Eskolak idazketan trebatu behar ditu ikasleak. Era guztietako testuetan trebatu behar ditu: narratiboak, informatiboak, azalpen testuak, instrukzio testuak... Halaber, beste nonbaitetik ateratako informazioa birmoldatzea, laburbiltzea eta antolatzea ere eskatzen diegu sarritan gure ikasleei. Helburu hori kontuan hartuta eta funtzionaltasuna tarteko, hainbat proiektutara jo izan dugu beti. Aldizkari, egunkari, triptiko, txartel, pankarta, horma-irudi... eta horrelakoez baliatu izan gara.

Azken urteotan horri guztiari beste erronka berri bat gehitu behar izan dugu; informazio eta komunikaziorako teknologiek (IKT) bateratzea arestian aipatutako guztia. Hartara, bi helburu batera lortzekotan gaude. Batetik ikasleak idazketan trebatu, eta bestetik

IKTak eguneroko irakaste-ikaste prozesuan erabili. Zer esanik ez, gainera, zer-nolako motibazioa izaten duten gure ikasleek IKTak erabilia.

Publisher baliabide egokiena

Aipatutako afera horretan Publisher programak paper garrantzitsua jokatuko du. IKTak eskolan sartzen hasi zirenetik ahalizan dugun moduan moldatu behar izan dugu, eta baita hainbat egoerei aurre egin ere, besteak beste, ekipo egokien falta, proiektu informatiko baten gabezia, irakasleen formazio falta, software mugatua... Idazketa lantzeari dagokionez, normalean Word programara jo izan dugu. Denok eza-gutu izan dugun testu prozesadore baretakoa.

Poliki-poliki eskola guztietan

IKTen egoera hobetzen joan da, eta, u-
ne honetansartzen dajokoan Publisher
programa. Microsoft-ekoa izanik, dau-
kan itxura oso ezaguna egingo zaio-
ikasleari Wordenaren antza handia
duelako. Gainera, ez dugu aparteko
arazorik izango eskuratzeko, Office
2003rekin batera baitator.

Ikastaro honetako ikasleak baliabi-
de aberats bat aurkituko du Publisher
programan. Word baino askoz ere ego-
kiagoa da arestian aipatutako proiektu-
ak aurrera eramateko orduan. Izan
ere, Publisher maketazioak egiteko
programa da. Bertan testu zein irudie-
kin erraz egingo dugu lan, Worden ho-
rretan dituen mugak gaindituz. Modu
berean, Wordetik zein Internetetik eka-
rriko ditugu testuak (edo irudiak) Pu-
blisherrera inongo arazorik gabe.



Publisher maketazioak egiteko programa da eta web guneak sortzeko aukera ere ematen du.

Horretaz guztiaz gain, Publisherrek web guneak sortzeko aukera ere ematen du. Gero eta gehiago dira web guneaz baliatzen direnak ikasleen lanak zabaldu eta ezagutarazteko. Publisherrekin bada, web orrialdeak modu errazan sortu eta kudeatuko ditugu. Are gehiago, gure ikasleek ere aparteko zailtasunik gabe egingo dute.


Eta nola ikasiko dugu Publisher erabiltzen?

Ikastaro honen metodologia erabat funtzionala izango da. Teoria praktikaren bitartez ikasiko du ikasleak. Horregatik, zenbait proiektu eramango ditugu aurrera, ondoren, gure ikasleekin egingo dugun modu berean. Proiektuak, gainera, zabalak izango dira, hots, era sinpleago edo konplexuagoan burutu ahal izango dira norberaren gaitasun eta erritmora moldatuz.

Ikastaroan aurrera eramango ditugun proiektuak honako hauek izango dira nagusiki:

- Kartelak eta pankartak.
- Liburuxkak.
- Aldizkari edo egunkariak.
- Web guneak...
- ... eta taldearen arabera sor daitezkeen beste batzuk ere bai.

Zalantzarik gabe, oso ikastaro aprobetxagarria izango da. Alde batetik ikasleek ikasiko dutenarengatik eta, batez ere, ondoren norberak bere ikasle taldearekin aplikatuko duenarengatik.



Photoshop

Irudiak hobetzeko eta egokitzeko programa osatuenetakoa da



Xabier LERTXUNDI

IRAKASLEA

Photoshop eguneroko irudiak hobetzeko eta egokitzeko erabil dezakegun programa osatuenetakoa da.

Teknologia Berrien erabilerak hainbat tresna digitalen ezagutza eta menperatze maila egoki bat exijitzeaz gain, software (programa) egoki bat ezagutzera ere behartzen gaitu.

Horretarako aukeratutako programa Photoshop izango da.

Irudia tratatzeko programa profesional baten aurrean egon arren, era erraz eta azkarrean soluzio izugarriak ematen dizkigu ikastetxeko eguneroko lanetarako.

Ikastaro honetan Photoshopek dituen oinarriko aukerak ikusi eta landuko ditugu.

Horretarako, Photoshop programa ardatz hartuta, ikastaro honetan zera ikasiko dugu:

- Sarrera: lan tokia ezagutu
- Irudiaren erresoluzioa eta neurria (inprimatu, weberako edo aurkezpen baterako)
- Esploratzailea
- Paleta nagusienak ezagutu
- "Erremintak" ezagutu
 - . Pintzela, "makil magikoa", "klonatzeko tanpoia", selekzio erak, lazoak...
- Artxibo motak: psd, jpg, gif, bmp (ezaugarriak)
- Kapak: erabilera eta aukerak
- Testua landu
- Kolorearen tratamendua: distira, kontrastea, kurbak, zuzenketak...

- Filtroen erabilera
- "Akzioak"

Ariketa praktikoak

- Eskaneatu (erresoluzio egokiak)
- Irudi baten pisua aldatu (weberako egokitu)
- Irudi bati fondoa kendu
- Irudi desberdinekin muntaiak egin
 - Web galeriak egin
 - Argazki zahar bat berritu
 - Begi gorriak zuzendu
 - Kartelak eta iragarkiak egin
 - Argazki bat hobetu: kolorea, argitasuna, enfokea...
 - Pertsona baten azalaren itxura gaztetu



-Txuri-beltzeko irudi bat koloreztatu

- Argazki baten tonu desberdinak lortu: sepia...

- Tutorial desberdinak ezagutu:

. Estilo desberdineko testua sortu: suaren itxura duten letrak, urrezkoak, kristalezkoak, izotza itxurakoak...

. Irudiak deformatu

. Pergaminoak egin

. Testura desberdinak sortu

. Eztanda bat sortu

. Tximista bat sortu

- Photoshopi buruz Interneten dauden hainbat helbide ezagutu (trukoak, efektuak, tutorialak, foroak...)



Linux



Elena LAZKANO, Aitor SOROA eta Joseba MAKAZAGA

EHUKO INFORMATIKA FAKULTATEKO IRAKASLEAK

Aplikazio informatikoei dagokien ezjakinak gara: ez dakigu zenbat tresna erabil ditzakegun geure lanean, eta ezagutzen dugun gutxi hori saltzaileek esaten digutena besterik ez da. Baina saltzaileek negozioa egin nahi dute eta ez digute merkatuan dagoen guztia erakutsiko. Are gutxiago, negozioa egiteko balio ez dionik.

Software librearen mundua oso erabilgarria da, batez ere hezkuntzan. Eskaintza oso zabala da, milaka proiektu daude martxan, eta gure behar gehienak asetzeko sortu dira. Ikasleek ere eskura dauzkaten tresnak dira, eta ahalmen ekonomikorik gabekoei ahalmen handia dutenen pare egoten laguntzen diete.

Ikastaro honetan edonork eskura dauzkan tresna horiek aurkeztu nahi ditugu, software libre gisa ezagutzen diren horiek: gure makinetan erabil di-

tzakegun programak, ordaindu beharrik gabekoak, baina ordaintzen direnak bezain onak edo hobeak direnak. Era guztietako aplikazioak azalduko ditugu. Batzuk ezagunak dira, esate baterako, *mozilla-firefox* nabigatzailea edo ofimatikako *OpenOffice* aplikazioa. Beste batzuk, ordea, ez dira horren ezagunak, nahiz eta oso onak eta erabilgarriak izan. Azken horien artean sar genitzake *The Gimp* irudi edizioako aplikazioa edota *evolution* posta eta egutegi-kudeatzailea.

Irakaskuntzaren munduari begira aplikazio asko dago: kimika ikasteko balio dutenak, mekanografia ikastekoak, Lehen Hezkuntzakoei bideratutakoak, marrazketarakoak, aurkezpenak egitekoak, funtzio matematikoak marraztekoak eta abar. Horiek ere ezagutzera eman nahi ditugu, nahiz eta horien guztien erabilera ikasteko denbo-

rarik ez eduki, hor daudela jakitea garrantzitsua baita.

Hizkuntzaren aldetik begiratzen badugu, software libre asko eta asko euskaraz erabil daitezkeela azpimarratu behar dugu: hor dago ofimatikako *OpenOffice* aplikazio osoa euskaraz, edota *firefox* nabigatzailea, edota *nautilus* fitxategi kudeatzailea, kalkulagailua, CDak erreproduzitzekoa, *evolution* posta kudeatzailea... Eleaniztasunerako prestatutako aplikazioak dira, bai Eusko Jaurlaritzak, bai librezalekoek eta bai beste hainbatek euskaratu eta euskaraz mantentzen dituen aplikazioak, hain zuzen ere. Gainera, euskaratze lanetan edonork lagun dezake, horregatik daude hainbeste aplikazio euskaratuta.

Aplikazio horiek guztiak era errazean instalatu eta erabil daitezke GNU/Linux sistema eragilea daukaten makine-



tan. Automatikoki eta saretik bertatik instala daitezke guztiak; ezin errazagoa da. Horregatik, ikastaroan Ubuntu/Edubuntu instalatzen eta erabiltzen irakatsiko dugu. Behin instalazioa eginda, ikusiko dugu aipatu ditugun aplikazio horietako asko instalatuta dauzkagula, eta instalatu ez direnak saguarekin bi klik eginez instala daitezkeela ikusiko dugu. Bestalde, bai sistema bera eta bai aplikazioak automatikoki eguneratzen dira.

GNU/Linux sistema erabiltzeko ezagutza berezirik ez da behar, beste sistemak erabiltzeko jakitea komeni dena jakitea eskatzen du honek ere. Horregatik, fitxategi sistemen eta informazio biltegien (USB drive, CD, DVD...) erabilerara egokia nola egin behar den ere gogoraraziko dugu.



**Software
librearen
mundua oso
erabilgarria da,
batez ere
hezkuntzan.**

BIDAIA PEDAGOGIKOA

Reggio Emilia, Italiako
haur eskolak ezagutzera

goaz

*57 lagun joango
gara Euskal
Herriatik, eta...*

2006ko urriaren
11tik 15era

Euskal Herria

Reggio Emilia

*...gurekin etorriko dira
hainbat katalan, galiziar,
valentziar eta kantabriar.
Guztira, 200 hezitzaile.*

hh
hik hasi

Ale monografikoak

1) Irakurketa eta idazketa konstruktibismoaren ikuspegitik (agortuta)



2) Marrazki ekoizpenaren bilakaera
3) Baloreak irakaskuntzan
4) Atxikimendua

5) Vigotski
6) Afektibitatea eta Sexu Hezkuntza
7) Kohlberg

8) Hizkuntza idatzia eta ikasleen aniztasuna
9) Etorkinak gure eskolan
10) Antzuola herri ikastetxearen proiektua

17) Pedagogo sortzaileak
16) Estresa irakaskuntzan

11) Howard Gardner
12) Heriotza heziketan
13) Jerome Seymour Bruner

14) Jorge Oteitza
15) Arreta gabezia hiperaktibitatearekin nahastea

Blogak irakaskuntzan



Jokin LACALLE

JAKINTZA IKASTOLAKO IKT DINAMIZATZAILEA



Mikel ETXARRI

JAKINTZA IKASTOLAKO WEBMASTERRA

Aspaldi honetan Web 2.0 izenpean Interneten gertatzen ari diren aldaketen berri jasotzen ari gara hedabideetan. Kontzeptu honen definizioa ikuspegi askotatik enfoka daitekeen arren, ikastaro honetan irakaskuntzari begira Web 2.0 delakoak lekarkeenaren inguruko azterketa egingo dugu, mugimendu berri honen buruan blogak kokatuko genituzkeelarik.

Zalantzarik gabe, 2005. urtea blogen iraultzaren urtea izan da. Blogarien hazkundera izugarria izan da, une honetan 40 milioi blog baino gehiago aurki daitezkeelarik. Horren ondorioz, sarean zehar aurki daitekeen informazioa inoiz baino ugariagoa da eta inoiz baino sakabanatuago dago. Garai bateko atari tematiko edo direktorio erraldoi haietatik (informazio guztia erabazten zentralizatuta aurkezten zuten webgunek) mikroinformazioa nagusi den Internetera pasa gara. Informazioaren sakabanatze horren ondorioz, behar be-

zala kudeatu nahi badugu, ohikoak ez diren tresna berriak erabiltzera behartuta gaude: horien artean RSS gehigarriak, informazioa etiketatzeko sistemak, gogokoak partekatzeko aukerak... Hori izango da, beraz, ikastaroaren lehen atala.

Sarean zehar topa daitezkeen blogen izaera anitza izanik, hauetako asko helburu didaktikoekin sortu dira. Hauek dira, hain zuzen ere, edublog izenez ezagutzen direnak. Egia esan, ez dira gutxi blogak irakaskuntzan erabiltzeko egon daitezkeen arrazoiak:

- 1) Erabilterrazak dira.
- 2) Multimediaiak dira, alegia, testua, irudiak, animazioak, ahotsa eta bideoa biltzeko euskarria eskaintzen dute.
- 3) Ikaslearen partaidetza bultzatzen dute: tresna eraginkorrak dira metodologia eraikitzaile baten barnean.
- 4) Gure egunerokoan erabiltzen ditugun beste hainbat baliabideekin konbinatuz, aurretik finkatutako helburu

didaktikoak lortzeko oso baliagarriak dira.

5) Blogak eta horien inguruan erabil daitezkeen aplikazio guztiak doakoak dira.

Blogaz gain, Web 2.0 berri honetan badira beste hainbat tresna hezkuntzan erabilgarritasun aparta eduki dezaketenak. Horietako gehienak lankidetzan oinarritutakoak dira, informazioaren trataera era partekatuan gauzatzeko balio dutenak. Hor daude wikiak, Writely edota View bezalako aplikazioak. Horiek guztiek, taldeko lanean oinarrituta, ekoizpen mota askotarikoak lantzeko aukera aparta eskaintzen digute. Horretaz gain, ikasleen artean ikuspuntu demokratikoagoa zabaltzea ahalbidetzen digu.



Ez dira gutxi
blogak
irakaskuntzan
erabiltzeko egon
daitezkeen
arrazoiak:
erabilterrazak
eta multimedialak
dira, ikasleen
partaidetza
bultzatzen dute,
beste
baliabideekin
konbina
daitezke eta
doakoak dira.



Bideoa

Editatzen ikasteko, pinnacle studio 9 programaren bidez



**Pelaio EIZAGIRRE
DE GARATE**

PADEKO ERREALIZADOREA ETA GERENTEA



Aitor ARANBURU

ERREALIZADOREA

Beste osagaiekin batera, bideo digitala material didaktiko bezala erabil daiteke. Horretarako, ordea, azken teknologiak eta erabilpenak ezagutu behar dira, eta hori da ikastaro honetan landuko dena. Bideo digitalaren edizioa eta DVDa nola egiten diren irakatsiko da.

Horretarako, edizio digitala egiteko behar diren bitartekoak erabiltzen irakatsiko da; bereziki Studio 9 programa eta horren osagarriak.

Studio 9-ren bitartezko Edizio Digital Ez Linealak nahasketa mahai tradizionala ediziorako sistema digital baten bidez konektatutako bi bideorekin ordezkatzeko ahalbidetzen du. Aldi bere-

an, post-produkzio on baterako behar den guztia eskaintzen du: trantsizioak, filtroak eta abar.

Edizio Digital Ez Linealak, hots, editatzeak edo Studio 9-rekin lan egiteak zera dakar: lehenengo eta behin, bideoak, argazkiak, audioak, animazioak eta abar lortzea. Bigarren urratsean elementu horiei guztiei forma emango zaie editaiaren bitartez. Kontuan hartu behar dugu zenbait elementuri trataera berezia eman beharko zaiela: formatu aldaketa, filtroak, ukituak... Azkenik, behin elementu guztiak nahastutakotan, esportatu egingo ditugu; beste modu batera esanda, nahi dugun sistema-terako aterako ditugu: DVD zintara edo avi

artxibora gero aurkezpen multimedia batean sartzeko.

Azken emaitza edizioan jartzen den interesaren eta ahaleginaren arabera, izango da. Studio 9 programa zabal da, beste "plug-ins" batzuetara irekia dago. Modu horretan, "plug-in" egokia aurkituz gero, bertsio estandarrean irudikaezinak diren gauzak egin daitezke.

Studio 9n lehen zatia da gogorrena; hots, lanerako kriterio teknikoak ezartzea. Baina, jakin beharra dago. Gainerakoa, nahasi samarra izan litekeen arren, dibertsigarria, ulerterraza eta praktikoa da: trantsizioak egitea, planoak kentzea, filtroak ezartzea, espazioak animatzea...



Bideo digitalaren edizioa eta DVDa nola egiten den ikasiko dugu.

Edukiak

Ikastaroan landuko diren edukiak hauek izango dira:

- Proiektuak sortzea:
 - * Proiektu berria ireki
 - * Proiektu baten osagaiak
 - * Proiektuaren egitura
 - * Proiektua gorde

- Bideoarekin irudiak hartzea:
 - * Bideoaren atzemate txartelak
 - * Hardware eta software-aren bidezko ulertzea
 - * Atzemate iturriak zehaztea
 - * Atzemandako bideoa gordeztea

- Bideo kanalak:
 - * Bideoaren stream sartzea kanaletan
 - * Irudi finakoak sartzea

- Bideoaren editaia eta muntaia:
 - * Editatzeko erreminten erabilpena
 - * Mozketa
 - * Lekuz aldatzea
 - * Denbora doitztea
 - * Desegitea

- Flitroen erabilpena
- Gardenkien erabilpena
- Bideo animazioa
- Soinu kanalak
- Izenburuak
- Proiektuak esportatzea
- Bideo formatuak:
 - * Formatu motak
 - * Bideo euskarriak
 - * CDtik DVDra



Konstruktibismoa eta kaligrafia koadernoak adiskidetzen



Iruñe IBARRA

**EHUKO FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIETAKO
DIDAKTIKA SAILA
GRAFOLOGOA ETA UEUKO KIDEA**

Posiblea al da konstruktibismoa eta kaligrafia koadernoak adiskidetzeari?

Baiezkoan nago. Konstruktibismoa eta kaligrafia elkarren kontrako ikuspuntutzat hartu izan dira, dilema moduan planteatu izan da bien arteko harremana. Baina hori gainditzeko unea iritsi dela uste dut. Ikastaro honetan adiskidetzeari proposamena landuko da, hau da, ikuspuntu biak hurbiltzen saiatuko gara.

Idazketaren arloan Emilia Ferreiren ikerketa eta hausnarketek eragin handia izan dute Euskal Herrian. Ferreirek Piageten konstruktibismoa kultura idatziari aplikatu zion. Ferreiren ikuspuntuan subjektuari ematen zaiola garrantzia, berak egiten ditu eraikuntzak. Harekin formatu izan dira hemen

ikastaroak eta hitzaldiak ematen jardun izan direnak. Baina denborarekin itxurraldatu egin da hasierako planteamendua. Askok ez dute sekula Ferreiren libururik irakurri. Sorkuntzari eta esaldiak egiteari garrantzi gehiegi eman diote eta ikuspegia murriztu egin dute. Kopia izatetik sorkuntzako jardun bat izatera pasa da idazketa, dena dela beharrezkoa ahaztuz. Musika tresna bat jotzen ikasten hasiberria denak ezin du konposatzen hasi. Horregatik, garrantzitsua deritzot berriro sustraietara jotzea. Normala da eta ondo dago bakoitzak bere eraikuntzak egitea, baina lan hori erraztu egin behar da gauzatxo batzuk kontuan hartuta. Haurrari erraztu egin behar zaio.

Irakurketa-idazketa metodoan

idazkera kopia edo berregitearen ikuspuntutik ulertzen da. Irakasleak erakutsi eta ikasleak hartu.

Nik beste diziplina batzuen bitartez aztertu izan dut idazkera eta iruditzen zait gainditu egin behar dela polemika eta dilema hori. Idazteak berak hainbat elementu lantzeko aukera ematen du: atzamarren bidez egiten da, burua erabiliz, ergonomiak ere badu zeresana... Hasieran pixka bat idazkera mekaniko gisa ez bada planteatzen, hori gelditzen dira beste norabide batzuk eta zenbait ohitura txar. Horregatik, uste dut lehen-dabizi mugimendua automatizatu egin behar dela eta gero sortu, edo sortu ahala automatizatu. Alegia, batak ez duela bestea kentzen.

Hori kontuan izanda, idazkeraren



garapena, ergonomia, grafologia, psikomotrizitatea, grafomotrizitatea... in-guruan dauden diziplina horiek ere kontuan eduki behar dira idazketan, zeren idaztea ez da marraztea, ez da margotzea, arau batzuk daude eta jarraitu egin behar dira: ezkerretik eskuinera eta goitik behera idatzi behar du-gu...

Azken batean, egiten dudan adiskidetzearen proposamena zera izango litzateke: haurrak sortzen joan behar du, eta bere eraikuntzak egiten, baina idaztearen kontzientzia hartzen ere joan behar du, hau da, norabide bat barneratzen, hitzen arteko espazio bat mantentzen eta abar. Kontzientzia hartzeak esan nahi du ez errepikatzea errepikatzegatik, baizik eta kontzientzia hartze horrek idazketa argia eta egiten erraza lortzen lagunduko duela. Hasieran kontzientzia hartzea lortzen bada, azkenean konturatu gabe idatziko dute haurrek, modu errazean.

Finean, orain arteko polemika gainditu egin behar da eta ikuspegi zabalgoko batekin ulertu behar da idazketa.

Urtez urteko lanketa

Idazketa ez da urtez urte lantzen, eta hori egin beharko litzateke. Ez bada urtez urte helburu konkretu batzuekin lantzen, hor gelditzen dela. Haurrek, metodo desberdinak tarteko, idaztea lortzen dute, baina ez dute lortzen idazketa ulerterrazik. Horregatik, helburu batzuk jarri behar direla iruditzen zait, gauza konkretu batzuk landu behar direla urte bakoitzean, ez asko. Nik 3-4 urtetik 8-9 urtera bitartean zer landu behar den planteatzen dut. Adibidez, hasieran garrantzitsua iruditzen zait orriari eustea edo norabidea lantzea. Adin bakoitzean oinarritzko helburu batzuk

ezartzen ditut. Horrek ez du esan nahi horrela izan behar denik, baizik eta progresio baten barruan kokatu behar da. Progresio baten gisa ulertzen dut helburuak jartzea.

Horrek guztiak haurrari era askean idazten lagunduko dio. Bestela, hor egongo dira beti idazketari begiratzen. Eta nahiz eta konstruktibismoaren bidez joan, kaligrafia koadernoetara bideratuko dira ikasleak. Horregatik, urtero egin behar da lan pixka bat, eta ikuspegi global batetik, eta ez lehendabiziko urteetan soilik.

Hori guztia lantzeko eta ikusteko, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara, urtez urteko idazketa plangintza bat planteatuko da (orri motak, norabidea, neurriak, loturak... kontuan hartuta).

Zer egin idazkera "txarrarekin"?

Sarritan ez da jakiten nola bideratu idazkera txarrak. Euskaraz ez zegoen idazkera txarren diagnostiko bat egiteko tresnarik, eta Mikel Haranburu eta

biok horretan gabiltza. Ajuriagerraren disgrafia testuetan oinarrituta, 3. mailatik 6. mailarako haurren idazkerak hartu ditugu eta ikusten ari gara zein diren txarrak, zein puntutik aurrerakoak diren txarrak eta horiek nola bideratu. Gure asmoa ez da tresna bat edo test bat egitea, ez eta "disgrafia dauka" edo "ez dauka" esateko tresna bat egitea. Baizik eta ikustea haurrak zein puntutan ez daukan idazkera argia: presioan, loturan, letra forman... Eta horiek argiago egiteko tresna eskaintzea.

Lehen aipatu moduan, idazkera ez da era sistematikoan lantzen eta normala da lerroak goraka, beheraka, letra arraroak eta ulergaitzak egitea. Hori bideratzeko tresna bat egiten gabiltza, beraz.

2006-2007 ikasturtean eskola batzuetan ikerketa bat egiten hasiko gara idazketaren kontzientzia hartzea lantzeko. Mementoz bi eskola aukeratuta dauzkagu, baina agian ikastaroaren ondoren gehiago ere animatuko dira edo zarete.



Haurrei ipuinak kontatzen trebatzeko ikastaroa: oinarrizko koordinatuak



Pello AÑORGA

IPUIN KONTALARIA ETA IDAZLEA

Lehenik eta behin mintzatuko gara nola gizakiak betidanik izan duen kontakizunak kontatzeko beharra. Eta gaur egun ere nola duen (dugun) behar ezinbestekoa. Izan ere, gaur egun kontuak partekatzen jarraitzen dugu. Bartzuk, agian, ez dira izango oso literarioak, baina gure kontuak aireatu behar ditugu lagunekin, kafearen aitzakian, edota janari baten bueltan: elkarren arteko bizipozak, emozio tristeko pasadizoak, emozio gozoko albisteak... geure bizitzari zentzua aurkitu nahian edo. Istorioren bitartez, nolabait, geure burua ordenatzen baitugu, geure nortasuna garatzen, eta geure identifikazioa lorzen. Garai batean suaren ondoan partekatzen genituen gure kontakizunak; gaur egunean, berriz, edozein lekutan-

-partekatzen ditugunean, behintzat--: dendan, autoan, ile-apaindegian, lantokian... edo Interneten. Kontakizuna izan daiteke literarioa, baina izan daiteke ez-literarioa ere. Pertsonok, pertsona garenez, kontuak behar baititugu, kontuak behar baititugu geure existentzia elikatzeko. Mundua interpretatzeko ezinbesteko adierazpide kulturala delako, eta etorkizunean ere, nahiz eta robotez inguratuta egon, kontuak kontatzen eta partekatzen jarraituko dugu.

Eta zein eratako kontakizunak parteka ditzakegu? Bada, mitoak, elezaharrak, alegiak, ipuin klasikoak, albumak...; baina baita pasadizoak, kontakizun autobiografikoak eta norberak asmatutako kontakizunak ere. Bai, norberak asmatutako kontakizunak!

Horregatik, norberak asmatzeko kontakizunak ere landuko ditugu. Landu ezezik, asmatu ere bai. Haur txikiek testuinguru hurbilak behar baitituzte, eta, askotan, kontakizunek darabilten ingurunea oso urrutikoa --arrotza ez esateagatik-- gertatzen denez, sortu egin behar izaten ditugu kontakizunak, eta haurraren testuingurura egokitu.

Baina nola konta daitezke ipuinak? Hainbat modu daude, baina ikastaroan hiru era aztertuko ditugu. Lehen, **irakurketa ozena** --askotan, kontatu baino gehiago irakurri egiten baitugu--. Horretarako, hainbat testu erabiliz, saiatuko gara esperimendatzen ea nola irakurtzen dugun jendearen aurrean, zein den gure estrategia, nola sortzen dugun komunikazioa eta abar.

kontatzen



Bigarrena, **kontaketa irudiez baliatua**. Horretarako, hainbat irudi aukeratu ondoren, saiatuko gara erantzuten ea interes estetikorik sortzen ote duten, ikusgarriak al diren, komunikazioaren onerako ote diren eta abar.

Eta hirugarrena, **kontaketa hutsa**. Horren bitartez, aztertuko dugu ea nola erabiltzen dugun hizkuntza. Gure “zaharrek” zer eratako moldeak zituzten ipuinak kontatzeko. Elipsiaren indarra, ahozko kontaketaaren estilistika, isiltasunaren garrantzia, erritmoaren zentzua. Nola erabiltzen ditugun begiak, keinuak eta imintzioak. Nola erabiltzen dugun ahotsa. Nola sortzen dugun es-

pazio errituala. Nola aukeratzen ditugun ipuinak. Zein den kontalariaren jarrera. Naturala izatearekin aski ote den. Haur txikiei edota haur handiei edo helduei kontatzea desberdina ote den. Bitartekoak nola erabil ditzakegun. Aukeratzen dugun espazioak zer baldintza behar dituen. Edozein memento ote den egokia ipuinak kontatzeko. Ipuinak kontatzen ari garenean zer irudikatzen dugun. Nola hartzen dugun arnasa. Zer partekatzen dugun entzuleekin. Zer den magia, zer umorea eta zer konfiantza. Afektua bilatzen ote dugun, edota efektua. Emoziorik partekatzen ote dugun eta abar.

Ipuinak
kontatzeko hiru
modu aztertuko
ditugu:
irakurketa
ozena,
kontaketa
irudiez baliatuta
eta kontaketa
hutsa.



Disgrafia

Disgrafiaren diagnostikoa eta tratamendua



Mikel HARANBURU

EHUKO IRAKASLEA

Sarrera

1. Idazketa prozesuaren lau faseak aztertuko ditugu lehenik: 1) Planifikazio fasea: zer, norentzat eta nola idatzi erabakitzeke; 2) Sintaxiaren fasea: gramatikazko arauak jarraituz mezua idazteke; 3) Lexikoaren fasea: esaldietan erabiliko diren hitzak aukeratzeko; 4) Mugimenduaren fasea: alografoak berreskuratu eta mugimendu bihurtzeko.

2. Konstruktibismoaren ikuspegitik, idazten ikasteko haurrak zein etapa igarotzen dituen aztertuko dugu ondoren: 1) Haurrak egindako trazuen eta errepresentatutako objektuen artean antzik ez dago; 2) Idatziaren eta objektu errepresentatuaren arteko egokitza-pena egiten da; 3) Marrazkia eta idatzia

ez dira bereizten; 4) Marrazkia eta idatzia bereizi egiten dira; 5) Haurra konturatzten da idazteko konbentzio batzuk jarraitu behar direla: grafismo kopurua minimoa eta grafismoen barietatea; 6) Letra bakoitzari soinu bat dagokiola konturatzten da haurra (hipotesi silabikoa); 7) Hipotesi silabikoaren garaian sortzen diren gatatzak; 8) Hipotesi alfabetikoa: letrek silabak baino txikiagoak diren soinuak ordezkatzen dituztela ikusten du haurrak.

3. Ajuriaguerraren idazketa faseak ere laburki ikusiko dira: kaligrafia arrerkoa, kaligrafikoa eta kaligrafi osteoko.

4. Garunaren eta idazketaren arteko harremanak aztertuko dira.

5. Kontzientzia fonologikoak idazketan duen eraginari buruzko ikerketen berri emango da. Entrenamendu fonologikoak idazketa prozesuan nola laguntzen duen ikusiko da.

6. Disgrafia definituko da eta disgrafia motak bereiziko dira:

- Planifikazio mailakoak, disgrafia sintaktikoa, disgrafia lexikoa eta mugimenduaren mailakoak.

- Disgrafia organikoak eta funtzionalak

- Sinbolizazio disgrafiak eta disgrafia kaligrafikoak.

- Idazketaren bilakaeran zehar gertatzen den disgrafia ebolutiboa eta garuneko zauriren baten ondorioz gertatzen den disgrafia eskuratua.



- Disgrafia zentralak (azalekoa edo lexikoa, fonologikoa, sakona, semantikoa) eta disgrafia periferikoak..

Disgrafiaren diagnostikoa

1. Disgrafien etiologia aztertuko da lehenik: hautematearen arazoak, gorputz eskemaren arazoak, arazo afektiboak, eskolako orientazioa, kontzientzia fonologikoa...

2. Idazketa moduluak nola diagnostikatu aztertuko da jarraian: planifikazio, joskera, lexiko eta mugimendu moduluen diagnostikoa.

3. Idazketaren ebaluaziorako erabiltzen diren tresna estandarizatuak eta beste tresna batzuk aztertuko dira ondoren: TALE, PROESC, Disgrafia Eskalak (Ajuriaguerraren "Disgrafia Eskala" eta "Haranburu-Ibarra Eskala").

Disgrafiaren tratamendua

Planifikazioaren, joskeraren, lexikoaren eta mugimendu prozesuen mailan esku-hartzeko ariketak proposatuko dira.

1) Idatzi beharreko ideiak, kontzeptuak eta informazioa sortu eta bildu.

2) Aurretiko ezagutzak aktibatu eta informazio mailako hutsuneak arakatu.

3) Ideiak antolatu: ideia nagusiak hautatu, ordenatu eta hierarkizatu.

4) Ideiak eta kontzeptuak modu ordenatuan eta gramatika aldetik ongi jositako esaldietan eman.

5) Prozesu lexikoei dagokienez, hitz irregularren, homofonoen edo kontsonante- sekuentzia zaileko hitzen ortografia zaindu.

6) Fonema-grafema egokitzapenari dagokionez, kontzientzia fonologikoa lantzeko programa aurkeztu eta landu.

7) Mugimenduen mailan, erlaxazioa, gorputz eskema, lateralitatea, antolamendu espazio-tenporala eta ikusmen-mugimen koordinazioa lantzeko eta gorputzaren jarrera hobetzeko ariketak proposatuko dira.

8) Grafologiaren eta grafoterapiaren oinarriko nozioak emango dira.



Antzerkia



Joserra FACHADO

AKTOREA

Hezkuntzan edo aisialdiko taldetan antzerkia lantzea nahi dugu, gogoaz dugulako, edo tokatu zaigulako, edo zer den jakin nahi dugulako. Eta noski, ez dakigu nondik hasi, antzezlanak non bilatu, ez dakigu gure ikasleentzat egokiak izango diren, eta gero lanketa nondik hasi, nola landu pertsonaiak, zer estilo jorratu, nola egin mugimendu eszenikoa eta abar. Horretarako planteatzen dugu ikastaro hau, galdera horien erantzuna bilatzen laguntzeko. Horregatik, ikastaro guztiz praktikoa izatea espero dugu, zuen zalantzak asetzeko proposamenarekin jaio dena.

Hasieran maila edo talde bakoitzean zer landu daitekeen ikusiko dugu, LHko 3. mailan edo Batxilergoan antzerkia ematea ez baita gauza bera. Zergatia landuko dugu eta bakoitzak bere iritzia azaldu, eztabaidatu eta agian adostu. Era berean, hainbat tekniken azaleko errepasoak egingo dugu: mimoa, clown-a, naturalismoa, fartsa, inprobisazioak...

Estiloak aukeratu eta gero, nola landuko dugun erabaki behar da: irakur-

keta dramatikoak, pertsonaiak lantzeko erak, mugimendu eszenikoen oinarri sinpleenak eta antzezlanaren kriterio pedagogiko eta estetikoak uztartzea. Horretarako, ikastaroan zaudetenenok eszenak landu eta zuzendu behar duzue, beste ikaskideei pertsonaiak bilatzen lagundu (nola mugituko diren, fisikoki nolakoak diren, zer ahots izango duten, zer ezaugarri eta berezitasun...). Gero hori dena oholtzara altxatuko dugu, eta mugimendu eszenikoak landuko ditugu (bizkarra ez eman ikus-

leei, pertsonaiak espazioan kokatu eta modu orekatuan mugitu). Horrekin batera, musikak edo dantzak edo bertsoak edo nahi dugun guztia sartuko dugu.

Azken egunean besteei erakutsiko diegu, eta jarraian, eztabaidatu, eta adostu, edo ez. Bibliografia ere bilatuko dugu (antzezlanak, teknikak) eta agian bideoz beste esperientziak ikusi.

Aurretik, beti motibatuzeko jokoak eta kontzentratzeko joko eta teknika berriak ikasiko ditugu. Eta noski, ondo pasa, dibertitu eta ikasi.





Zer landu, nola
prestatu
pertsoneiak, zer
estilo
jorratu, nola
egin
mugimendu
eszenikoa...?

Galdera
horiei
erantzuna
bilatuko
diegu.



Psikomotrizitatea

Psikomotrizitatea lehen haurtzaroan



Elena HERRAN

MAISTRA, PSIKOMOTRIZITATEAN ESPEZIALISTA ETA
PSIKOLOGIAN DOKTOREA

Haurtzaroa eta jolasa loturik daude bizitzan eta irakaskuntzan eta, dirudie-nez, zentzuzkoa da horrelaxe izatea, horrek parketako zabuetan zein eskolako areto eta geletan eragina izaten du eta. Hainbat galdera egin ditzakegu jolasaren inguruan gure gaiari eusteko: zeri deitzen diogu jolasa? Zer zentzu dauka edozein hurrek sortzen duen berezko jolasak? Jolasetan noraino dago errepikapena eta noraino berrikuntza? Zein da egokiagoa, bakarka ala elkarrekin burutzen dena? Jolasa eta psikomotrizitatea gauza bera al dira? Zorionez, eskolan jarduera bakoitzak dagokion lekua eta denbora dauka; ikastetxe gehienetan jarduera fisikoak, mugimenduak, korrika, jauzika ibiltzeak badauka bere lekua: psikomotrizitate gela.

Henri Wallonen teoriaren ideia nagusi batzuk erabiliko ditugu psikomo-

trizitatearen mamia argitzen joateko. Haren ustez, nortasuna da norberaren mailaren, maila hori gauzatzean dugun inguruko zirkunstantzien eta zirkunstantzia horiekin erlazionatzeko gaitasunaren emaitza bateratua. Naturak agindutako haurraren haziera organoa, heltzea ahalbidetzen duena, handitzeaz arduratzen da. Haziera organoaren funtzionatzeko joera biologikoa da heltzea, eta nerbio sistemaren menpean dago beti. Helduz gero, funtzionatzen hasiz gero, portaeraren errepikapena dator, eta ikaste prozesua zabaltzen du, eta bide batez, heldutasuna bera areagotzen. Beraz, giza garapena hazieraren, heltzearen eta ikastearen emaitza bateratua da.

Psikomotrizitatea giza garapeneko esku-hartze modura uler daiteke. Ondorioz, osagai biak –garapena eta esku-hartzea– aztertu beharko dira, objektua

eta helburua bereiztuz. Psikomotrizitatearen helburua haurraren garapena da, eta esku-hartzearen helburua, berriz, garatzen laguntzea. Abiapuntua dimentsio ebolutiboa da; haurraren garapenaren ezaugarriak, bilakaera eta gaur egungo adierazpenak ezagutu behar dira sakonki. Aurrekoak baldintzatuturik, dimentsio didaktikoa dator; psikomotrizitatean aritzen denaren zeregin zehatzak haurraren berehalako maila gauzatzeko zirkunstantziak zaintzea eta berarekiko harreman baikorri laguntzea dira. Beste era batera esanda, psikomotrizistok beharrezkoa dugu saioak dinamizatzeko, mementoko errealitate fisikora eta sinbolikora egokitzekeo gaitasuna.

Wallonen arabera, lehen haurtzaroaren funtzioa giza espeziearen prototipoa betetzea da. Hau da, biziaren lehen hiru urteen amaierarako, bizitza osoan



zehir garatuko ditugun gaitasunen eta bizipenen mamia edo lehen eredu gauzatzen da. Horregatik du horrenbesteko garrantzia aldi horrek, hasitako prozesuek bigarren haurtzaroan zehar tinkotzen, sendotzen eta malgutzen jarraitzen badute ere. Lehen eredu horren ezaugarri fisikoak aztertuko ditugu lehenik: erreflexuetatik borondatezko jardueretara, hau da, oinez, korrika eta jauzika egitera eta eskuak menderatzera. Emozioak eta giza harremanak elkarren segidan datoz, gizakiok genetikoki sozialak garelako, Wallonen arabera. Besteak ase behar ditu jaioberriaren eta haurtxoaren beharri-zanak. Honela, bien artean lotura afektiboa sortzen da. Giza taldeetan historikoki estimulu fisikoen gain giza estimuluak –sinbolikoak eta moralak– txertatu direnez, hizkuntza eta horrek hasieran gidatutako pentsamendua sortuz prototipoa osatuz doa.

Psikomotrizitatearen helburua giza garapenari laguntzea bada, haurraren garapen zirkunstantziak eta berarekiko harremanak zaindu behar ditugu bereziki. Tresna garrantzitsuenak jarrerak eta espazioaren eta denboraren antolakuntzarako gaitasuna dira. Jarrerak –entzumen enpatikoa, legearen ikurra eta lagun sinbolikoa izatea– alde psikikoaz –sinbolikoaz zein moralaz– arduratzen dira nagusiki, eta espazioaren eta denboraren –materiala barne– antolaketarako gaitasunak, berriz, estimulu fisikoekin du zerikusi handiena.

Amaitzeko, bertikaltasunaren garrantziaz hausnartzeko unea izango dugu. Beste animalia guztiengandik bereizten gaituena giza espeziearen postura bertikala da. Horizontaletik eta lagundutakotik bertikalera eta autonomora doan bilakaera aztertuz gero, jauziaren zentzuaz arituko gara. Lehenen-

go jauzi sakonekin batera, banaketa bertikalaren bertigoak “ohe” edo “etxetxo” eskakizuna dakar, eta berehala “otsoa” agertzen da psikomotrizitate aretoan. Irudikapenaren bilakaera aurrerantzean ikaragarria da, berezitasun eta adierazpen pertsonalak askotarikoak badira ere.



Psikomotrizitatea

Haur txikiaren behaketa psikomotrizitate praktikaren ikuspegitik



Alvaro BEÑARAN

PSIKOMOTRIZISTA ETA BERGARAKO PSIKOMOTRIZITATE
ESKOLAKO IRAKASLEA



Rikardo ACEBO

PSIKOMOTRIZISTA ETA BERGARAKO PSIKOMOTRIZITATE
ESKOLAKO IRAKASLEA

Haur Hezkuntzan haur txikiak nola funtzionatzen duen ulertzea interesatzen zaigu, bere garapena eta heltzea modu egokian aurrera eramateko zein bitarteko dituen jakitea. Horretarako, lehendabizi formazio nahikoa eskuratu behar dugu, haurrak bere eboluzioan jarraitzen duen ibilbidea ezagutzeko.

Era berean, haurra nolakoa den eta zer egiten duen entzuteko eta behatzeko jarrera eduki behar dugu. Modu horretan, gure heziketa estrategiak marko orokorraren eta haur bakoitzaren errealitate espezifikoaren arteko emaitza egokitua izan behar du.

Gure ikuspegiaren arabera, haurra behatzea formazio pertsonal eta profe-

sionalaren ibilbidearen emaitza da. Horrek hainbat gauza ahalbidetzen dizkigu. Hasteko, geure buruari begiratzeari, hau da, geure nortasuna, gaitasunak eta mugak ezagutzeari "barruan daukagun haurraren gaitasuna" iristeko. Horrela, dezentrazio ibilbide bat egingo dugu eta behatzeko, entzuteko eta haurrak adierazten duena enpatiaz ulertzeko gai izango gara. Ahal dugun argiena bereiztuko dugu haurraren dena eta gure historia eta egoera propioari dagokiona.

Haurrak zer bizitzen duen jakiteko modu bakarra guk geure bizipenen gaineko lan bat egitea da, betiere haurraren munduko osagaiek erlazioa duten alderdiak landuz: norberaren se-

gurtasuna eta konfiantza, eta besteetarako segurtasuna edota konfiantza; hau da, lehendabiziko urteetan bizitutako guztia eta ondoren banaketarekin, indibidualtasunarekin eta autonomiarekin lotuta bizitutakoak.

Haur txikiak egiten duena behatzea haur horrek munduan egoteko eta izateko duen moduari arreta jartzea da: haren ekintzak (sortzaileak, gehiegizkoak, eskasak eta abar); haren mugimendua (harmonikoa, zurruna eta abar); haren jauziak, erorketak, kulunkak; haren jokoak eta hartzen dituen rolak; haren sinbolizatze gaitasuna edo gaitasun eza; ekintzetan adierazten duen plazera; haren keinuak, mimika; haren hitzak, isiltasunak; begirada; haren ga-



rasiak, negarrak, barreak; haren marrazkiak, eraikuntzak; nola entzuten dituen ipuinak, nola kontatzen dituen bere gauzak; haren beldurrak eta konpetentziak eta abar. Horren guztiaren bidez kontatzen digu haurrak nola dagoen eta zer behar duen helduengandik, hezitzaileengandik.

Behaketa horrek ez du "haurra zaitu" behar; bere osotasunean hartu behar da, jakinik bere alderdi guztiak (gorputzekoak, afektiboak eta kognitiboak) estuki lotuta daudela, ekintza eta joko bakoitzean adierazten den moduan. Horregatik, derrigorrezkoa dugu behar bezala lantzea entzuteko eta begiratzeko dugun gaitasuna, horrek ahalbidetuko baitigu haurra ezagutzea eta den bezala onartzea. Modu horretara, gure esku-hartze pedagogikoan haurraren errealitatek abiatuko gara, gure aurrean dagoen benetako haur horrengandik, eta ez haur teoriko batek. Bestela, haur teoriko horrek gure aurrean daukagun haurra itxuraldatu edota ezkutatu egin dezake.

Kontua da guk geuk geure burua behatzea haurra behatu ahal izateko; guk geuk geure burua ulertzea haurra ulertu ahal izateko; haurra ulertzea gure pedagogia egokitu ahal izateko; haurra ulertzea errespetatu ahal izateko.

Aniztasunaz hainbeste hitz egiten den garai hauetan, balio hori lantzeko modu bakarra desberdintasunak onartzea eta haur bakoitzari erantzun desberdinak eta egokituak ematea da. Izan ere, entzuteko eta egokitzeko pedagogia horretan, euren desberdintasunak aintzat hartzen diren heinean, berdinek sentitzeko aukera dago.

Haur Hezkuntzaren helburu nagusia haurrari testuinguru bat, giro bat eskaintzea da, zeinak segurtasun afektiboko eta psikologikoko oinarri egoki

bat eraikitzen laguntzen dion. Modu horretan, autonomiarantz abiatu ahal izango du, egiteko plazeretik pentsatzeko plazerantz: **izateko** plazererantz.

**Kontua da guk
geure burua
behatzea
haurra behatu
ahal izateko.**



Jolas kooperatiboak

Haurrengan jarrera gizatiarra, garapen emozionala eta sormena sustatzeko jolasen programak



Maite GARAIGORDOBIL

EHuko PSIKOLOGIA FAKULTATEKO IRAKASLEA



Ainhoa DURÁ

HAUR PSIKOLOGOA

Ikastaro honetan jolas kooperatibo eta sortzaileetan oinarritutako interbentzio psikohezitzailearen adar bat aurkeztuko dugu. Beronen helburua garapen soziala, afektibo-emozionala eta haurren sormena bultzatzea da.

80ko hamarkadatik hona Haur eta Lehen Hezkuntzako hainbat taldetan ezarri dugun proposamen honen oinarri teorikoa ikerketako hiru korrante handiren ondorioetan datza. Lehenengo eta behin, haurren jolasen inguruko ikerketen ondorioak; giza garapenerako funtsezko jarduerak da, haurren garapen integralean eraginkortasunez

eragiten baitu, hau da, haurren garapen psikomotor, intelektual, afektibo-emozional eta sozialean. Bigarrenik, portaera sozialean aldeko ikerketen ondorioetan oinarritzen da; hortik ater dira garapen pertsonalaren eta sozialean hainbat faktoretan nolako onurak dituen heziketaren testuinguruan kooperatiboak *versus* lehiatzeak. Eta hirugarrenik, sormenaren gaineko ikerketak daude; ikerketa horiek haurren sormenaren garapenean entrenatzeak duen eraginkortasuna baieztatzen dute.

Jolas kooperatibo eta sortzaileen

programetako jarduerak bi helburu nagusi dituzte. Lehenengo, beren hazkuntzean arazorik ez duten haurren garapen integrala bultzatu nahi da, bereziki alderdi sozio-emozionaletan eta sormenaren garapenean eraginez. Bigarrenik, programa honek funtzio terapeutikoa dauka, jolasaren esperientziaren bitartez lagunekin interakzio arazoak eta beren garapenean bestelako arazoak dituzten haurrek sozialki integratzen direlako. Bi helburu nagusi horiez gain, beste hainbat zehatzago ere biltzen ditu programak.

Oro har, programako jolasek ko-



Jolas kooperatiboek komunikazioa, kohesioa, konfiantza eta sormenaren garapena estimulatzen dituzte.

munikazioa, kohesioa, konfiantza eta sormenaren garapena estimulatzen dituzte. Eta horren azpian elkarrekin jolastuz eta asmatuz onartzeko, errespetatzeko eta partekatzekeo ideia dago.

Programa honetarako sailkatutako jolasek egiturazko bost ezaugarri dituzte:

1- Parte-hartzea: jolas hauetan taldeko guztiek parte hartzen dute, ez da inoiz inor kanporatzen eta ez du inork irabazi edo galtzen. Xedea taldeko helburuak lortzea da, eta horretarako, taldekide bakoitzak beharrezkoa den eginkizuna du jolasaren barruan.

2- Komunikazioa: jolas guztiek talde barruko komunikazio prozesuak egituratzen dituzte.

3- Kooperazioa: jolas gehienek hurreman dinamika estimulatzen dute. Horrek taldeko helburua lortzeko elkarri laguntza ematea dakar.

4- Fikzioa eta sormena: errealitatea edo egia "balitz bezala" jolasten da, hots, elefanteak, hegazkinak, piratak edo artistak... bagina bezala, eta elementu berriak sortzeko estimuluak ere konbinatzen dira.

5- Dibertsioa, ondo pasatzea: jolas hauen bidez haurrek taldekideekin positiboki eta era konstruktiboan arituz ondo pasa dezaten ahalegintzen gara.

Programak hainbat dimentsiotan (ahozkoa, dramatikoa, plastiko-konstruktiboa eta grafiko-figuratiboa) komunikazioa, gizartearen aldeko portera eta sormena estimulatzekeo 60 jolasez osatuta daude. Programako ekin-tzak bi modulu edo talde handitan banatzen dira:

1- Komunikazioa eta gizartearen aldeko jarrera jolasak.

2- Sormen jolasak.

Programa hau gelan ezartzeak hiru

fase eskatzen ditu: testaren aurreko ebaluazioa, jolas programaren ezarpena eta testaren ondorengo ebaluazioa.

Egin diren ikerketek enpirikoki frogatu dute jolas kooperatiboek eta sortzaileek garapenean duten garrantzia. Izan ere, haurren sormenerako eta garapen sozio-emozionalerako baliagarri diren interbentzio psikohezitailerako tresna ludikoak sistematizatzen ditu.



Birziklatuz sortu



Amaia ZINKUNEGI

ARTE EDERRETAN LIZENTZIATUA



Ines GEREKA

BILOGIAN LIZENTZIATUA

“Birziklatu plastika eta ingurunea lotuz”.

Lehen Hezkuntzan, birziklatze zein plastika arloan hutsunea zegoela eta irakasleriaren formazio eskaerak bazeudela ikusita, tailer hauen ideia sortu zen.

Argi dago bai etxeetan eta bai eskoletan zabor asko sortzen dugula, eta gure haurrei zabor bakoitza bere eduki-ontzira botatzeko edota horrenbeste zabor ez egiteko erratea soilik ez dela nahikoa. Baina zabor horiei beste erabilera bat ematen badiegu eta hainbat material zein teknikekin diseinu propio bat sortu, bi arlo hauek uztartuko ditugu: birziklatzea eta plastika.

Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek beraien ikasleei modu praktikoan (hau da, plastikaren bitartez) birziklatzea zer den erakustea da gure proposamena. Beraz, ikastaroa erabat praktikoa izango da eta esperimentazioa izango da oinarria. Modu horretara, sortu ahala, materialen baliabide plastikoaz ohartuko gara eta hainbat teknika ikusiko ditugu.

Ikastaroaren edukiak honako hauek dira:

- 1.- Bolumena landu: egunkari paperarekin, komuneko paperaren kartoiekin eta plastikozko poltsekin.
- 2.- Maskarak egin: kartoizko kaxa eta arropa zaharrekin.
- 3.- Txotxongiloak eta pertsonaiak

sortu: latak eta plastikozko ontzi desberdinekin.

4.- Objetoak (lanparak, mugikorak, markoak eta abar): kartoia, ontziak eta traste zaharrak erabiliz.

Horrekin guztiarekin bete nahiko genituzkeen helburuak hauek izango lirateke:





* Haurtzarotik birziklatzea modu praktikoan landuz, inguruneaz gehiagojabetzea.

* Gaur egun bizi dugun “erosi eta bota” kultura kontsumitzaile honetaz hausnartzea.

* Botatzen ditugun objektuei erabilera berri bat emanez, bere balioaz ohartztea.

* Birziklatzean diseinu berriak landuz sormena zein trebetasuna sustatzea.

* Birziklatzean sortzen diren arazo tekniko zein estetikoei aurre eginez, plastika “kontzeptuan” sakontzea.

* Zabor artean, esperimentazioaren eta jolasen bidez irudimena lantzea.

Zaborrei beste erabilera bat ematen baldin badiegu eta hainbat material zein teknikekin diseinu propio bat sortu, bi arlo hauek uztartuko ditugu: birziklatzea eta plastika.



Musika Hezkuntza Berezian

Musikaren esku-hartzea Hezkuntza Berezian



Jose Ramon VITORIA

ARRASATE MUSIKAL MUSIKA ESKOLAKO IRAKASLEA
HUHEZIKO IRAKASLEA

Ikastaro honetan, lortu nahi dena zera da: Hezkuntza Berezian esku-hartze musikaren ikuspegi orokorra eta objektiboa eskaintzea. Horretarako, hainbat lurraldetako hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonengan txertatutako metodologiak hartuko dira kontuan.

Ondoren, hiru testuinguru aztertu nahi ditugu, beraien ezaugarriak desberdinduz: ezaugarri pedagogikoa, didaktikoa eta kokapen fisikoa. Horrela, lehenik eta behin, eskolan aplikatzen diren errekurtso musikalen proposamenak aztertuko dira. Horretarako, Euskal Herriko eta Espainiako eskole-tako adin desberdinetako ikasleen musika saioak erakutsiko dira.

Bestalde, musika eskoletan hamar urtetan izandako esperientzia aztertuko da. Bertan, Down sindromea, buru atzerapena, garun paralisia eta autismoa duten pertsonen garapena aztertuko da, alderdi hauek zehaztuz: entzumen, psikolinguistika, tonuen bereizketa, erritmoa eta instrumentua jotzeko gaitasunak.

Azkenik, beste lurralde batzuetako esperientzia anitzak testuinguru eta egoera konkretu batzuetan aztertuko aukera izango dugu.

Hezkuntza Bereziko ikasle eta irakasleentzat, musikako ikasle eta irakasleentzat eta musika eskolako irakasleentzat bideratutako ikastaroa da honako hau.

Edukiei dagokienez, puntu hauek landuko dira:

- Egungo egoera ezagutzea eta aztertzea: esperientziak, ikerketak...
- Munduan eskaintzen ari diren proposamen metodologikoak ezagutzea.
- Esku-hartzearen helburuak finkatzea: orokorrak eta musikalak.
- Musika esku-hartzearen ezaugarriak, baldintzak eta perspektibak identifikatzea.
- Irakasleen eta ikasleen gaitasunen inguruan eztabaidatzea.
- Musikaren eta beste arloen arteko loturak aurkitu eta aztertzea:
 - o Arlo psikolinguistikoa
 - o Entzumen garapena
 - o Soinuaren ezaugarriak, to-



nuen eta erritmoen bereizketa
o Motrizitate fina eta interpreta-
tazioa: instrumentu bat jotzeko

Erabiliko dugun metodologia prak-
tikoa izango da. Edukiak eta proposa-
menak eskaintzeko bideoa erabiliko
dugu euskarri nagusi moduan. Horre-
gatik, behaketaren prestakuntza, eta
gaur egunean gauzatzen ari diren hain-
bat esperientzien berri azaltzeko eta az-
tertzeke aukera izango dugu.

Bestalde, eztabaida, oharpen eta
gogoeta-jolas dinamika bultzatu nahi
dugu, beraz, era aktiboan oinarritutako
saioak izango dira.



Hezkuntza
Berezian
musika
lantzeko
dauden
proposamen
metodologikoak
ikusiko dira.



Musikoterapia

Musikadunak, musikazaleak eta musikagileak garenontzat



Aitor ZENARRUZABEITIA

MUSIKA IRAKASLEA, LOGOPEDA, MUSIKOTERAPEUTA,
PSIKOMOTRIZISTA ETA PSIKOPEDAGOGOA

Pilulak baino CD sendagarri bat erostean ote datza kontu hau? Edo agian elkarrekin soinu egiterakoan sortzen den erresonantzia emozionala ote dugu botika berria? Erantzuna, maisu-andereño, musikari edo azken melodia eranskorren txistuzale sutsu hori, erantzuna –Bob Dylan-ek zioskunez haizeak daroa.

Baina haizeen orraziatik ez oso urrun, ikastaro praktiko honetan, hain zuzen ere, abagune aparta izango duzue gure soinuak komunikatu egiten duela konturatzeko: ea, jakingo alzenuke zure giltzak soinuak soilik begiak itxita eza gutzen? Eta atea nola itxi duen eta bere urratsen arabera, nor sartu berri den

etxean? Era berean, soinu-giro hutsez antzemango al zenituzke lekuak, egoerak, pertsonak...?

Musikoterapiak dioskunez, hizkuntza emozionala dugu musika, hots, gure psikismoaren partitura.

Eta partituraz ari garelarik, honatx ikastaroaren gps-a:

Bat-batekotasuna landuz

- Sormen soinu magmak: aulkiz, kaxe, eztarriz, musika tresnez...
- Sormen oihartzunak.
- Sormen melodiak: plakaz eta kani-kaz, txirulaz, txistuz...

Entzumena landuz

- Entzumen kinetikoak: tai-txia, tangoa, baltsa, rocka...
- Entzumen tonikoak: besarkaterapia, masaje musikalak...
- Entzumen bibroakustikoak: giza txalaparta, dutxa fonikoak, akorde besarkadak...
- Entzumen akustikoak: hots paisaiak, bidaia musikalak, bereizketa tinbriko eta tonalak...

Erritmoa landuz

- Gorputz perkusioak: matematika poliritmikoa, desfaseak, elipsiak...
- Zapatarritmia mayumana.



- Mahairritmiatik danborretara.

Ahotsa landuz

- Arnasketa-proiekzio teknikak.
- Fonazio-entonazio teknikak.
- Jolas prosodikoak: izen amildegia, puxikaz...

Partitura landuz

- Drama partiturak: filmetako soinu bandak.
- Ikono partiturak: somatogramak, collagefoniak.
- Notazio partiturak: ostinatoak mekaniko eran, erritmogramak mila tinbrez.
- Pentagrama lurrean, horman, velcroz eta velledan.
- Melodia eta harmonia Boomhackers tutuz.



*Haizeen
orraziatik ez oso
urrun,
ikastaro
praktiko honetan
abagune aparte
izango dugu
gure
soinuak
komunikatu
egiten
duela kon-
turatzeko.*



Biodantza



Bixen ASTIASUINZARRA

IRAKASLEA

Orain dela 35 urte sortu zuen biodantza Rolando Toro txiletar psikologo eta antropologoak. Gaixoekin egiten zuen lan eta haiekin esperientziak egiten hasi zen musika bitarteko hartuta. Musikak gaixoengan izugarritzko eragina zuela konturatu zen. Musika mota batekin oso euforiko jartzen ziren eta beste musika mota batekin oso depre-sibo. Beraz, musikaren bidez pertsonak alde batera edo bestera bidera zitzakeela konturatu zen.

Pinocheten garaian Argentinara egin zuen ihes. Gero Brasilerara joan zen eta han sendotu zen biodantza.

Biodantzaren oinarrian musika, mugimendua eta bizipenak daude. Hiru elementu horiek batzen eta integrazten ditu.

Musika da haria, musikak bideratzen du biodantzako saioa. Musikak eta afektibitateak. Horrela, saioak bide melankolikoa, ludikoa, bizia, geldoa, barnerakoa... har dezake.

Musikaren erritmorik gorpuztu mu-

gimenduan jartzen da, mugimendu librean.

Eta bizipenak. Behin saioan barneratuta, bakoitzak bere bizipenekin eta sentipenekin konektatzen du. Hori da, gainera, helburu orokorra. Izan ere, sarritan burua eta gorpuztu bakoitza bere aldetik ibiltzen dira, elkarren arteko loturarik gabe. Eta gure eguneroko jardueran badute lotura. Esate baterako, norbaiten aurrean itxura segurua eman nahi baldin badugu, baina gorpuztu ez badu segurtasun hori sentitzen, hala xe adieraziko du, eta nabaritu egingo da gorpuztu transmititzen duen segurtasun falta hori. Biodantzak horren kontziente egiten laguntzen du.

Gure barneko bizipenetan murgiltzeak gure inkontzientean dugunarekin konektatzera garamatza: gure minarekin, gure txikitako esperientziekin, gure handitasunarekin, gure indarrarekin... Hitz batean esanda, gure benetako nortasunarekin konektatzen laguntzen du biodantzak. Ez da panazea

bat, ez dauka forma erlijiosorik, bakoitzak bere barruari begiratzeko beste ikuspegi bat da.

Ez da terapeutikoa eta bere helburua ere ez, baina ariketak ondo eginez gero, terapeutikoa izan daiteke.

Biodantza taldean egiten da, eta horrek ere badu bere garrantzia eta esanahia. Une batzuetan, barne munduan sartzen garenean eta gure sentipenekin bat egiten dugunean, negar egiteko gogo sor daiteke, edo besarkatua izatekoa. Taldeak horretan laguntzen du. Behar duenari babesa ematen dio.

Ikastaro honek bizati nagusi izango ditu:

-Lehenengoa aktiboagoa izango da eta egingo diren ariketak horretarako izango dira, aktibatzeak: oinez libreki ibili, dantza libre, erritmo indartsuak, dantza tribalak... Ez da erraza bat-batean irekitzea eta hasieran gorpuztu erresistentzia adieraz dezake. Gorpuztu egokitu egin behar da.



- Bigarren zatia barnerakoiagoa izango da: pixkanaka-pixkanaka barruko munduan sartzen joango gara: ariketa geldoagoak, lurrean etzanda, musika lasaiagoa, erritmo baxuagoa, ahots baxuagoa...

Hazi txiki batetik zuhaitz bat sortzen da, adarrak zabaltzeko eta kanpora irekitzeko gaitasuna duen zuhaitza. Gizakiarekin gauza bera gertatzen da. Hazi txiki batetik sortu ginen eta zabalitzen goaz. Biodantzak horretan laguntzen digu, barruko sentipenekin konektatu eta kanpora zabaltzen. Gorputza, sentipenak eta pentsamendua, dena bat egiten du.

Biodantzaren oinarrian musika, mugimendua eta bizipenak daude.



Haurrentzako masajea

Ukitu-sentitu-kokatu



Jose Ramon MAUDUIT

PSIKOLOGOA ETA PREBENTZIOAN ADITUA

Haurra inguratzen duen giroak erabateko eragina izango du haren garapeneraren garapenean.

Gaur egun badakigu, jakin ere, jaioberria ez dela izaki pasiboa, eta haurren gaitasunak lo egitearen eta jatearen mugak gainditzen dituela. Jaiotza-uneetik beretik, baita lehenagotik ere, susmatu ezin diren gaitasunak erakusten ditu.

Jaioberriaren larruazal-sentimena ez-ohikoa da. Heldu batek jasotzen dituen sententzioak jaso ditzake, eta hotz-beroak, goxotasuna eta gogortasuna, leuntasuna eta laztasuna, itsaskorra eta irristakorra, denak bereiz ditzake, baita presioaren xamurtasuna ere.

Haur baten ukimen-sententzioaren susperririk hoberena larruazalaz elkar ukitzea da. Amak haurra, bere bularren kontra jarrita, laztantzen duenean, berehala etorriko zaio haurrari la-

saitasuna.

Haur bat laztandu, edo masajea emango badiogu, eskuaren presioak zenbatekoa izan behar duen ikasi behar dugu. Laztan eztegiek jaioberria asper dezakete. Haurrek laztan leun baina energetikoak nahiago dituzte.

Reich-ek elkarrekiko mendekotasunaz diotenaren arabera, haurrak lehenengo masajeak umetokiaren barnean bertan jasotzen ditu; ukitzailea, aldi berean, ukitua da.

Ukimena da garatzen den lehenengo zentzumena (Ashley Montabu), eta, halaber, komunikazio bitarteko nagusia haurrentzat. Haur guztiek sumatzen dute ukituak eta mugituak izateko modua. Haurrak sententzio fisikoa lortzeko, gurasoek beharrezkoa den denbora hartzea beren seme-alaba ezagutzeko modurik agerikoena da. Helduekin gertatzen den bezalaxe, pentsatzen

eta sentitzen dugunaren zati handi bat gure eskuen bitartez adierazten dugu. Konfiantza eta segurtasuna modu irmo baina lasai batez helduz eta ukituz adierazten ditugu; aitzitik, segurtasunik eza eta antsietatea beso zurrunaz eta gogor helduz. Beren seme-alabekin ukimena garatzen eta kontaktu fisikoa lantzen duten gurasoek elkarrenganako aisetasuna sortzen dute hasieratik beretik, eta askoz ere zailtasun gutxiago dituzte ttipitxoa baretzen. Beti daude haurraren ukipenean eta horrek segurtasuna, konfiantza eta mendetasunik eza ematen dizkio haurrari, eta hori bere nortasunean eta besteekiko harremanean islatuko da.

Masajeak zirkulazio eta immunologia sistemak suspertzen ditu, eta, halaber, bihotz taupadei, arnasketari eta digestioari laguntzen die. Haurtxoaren garapena suspertzen du eta, indartzen



Laztanduak izan, sehaskan kulunkatuak izan, ukituak izan, masajea jaso: horiek guztiak haur txikien elikagai dira.

eta bere koordinazioa hobetzen doan neurrian, oreka ezin hobea ematen dio. Era berean, giharren elastikotasuna eta erresistentzia areagotzen ditu, jardunean dagoenean, nahiz seditenean dagoenean, erlaxatuta egoteko gaitasuna hobetuz.

Haurtxoari maiztasunez masajea emateak hura hobeto ezagutzeko, nola dagoen jakiteko, eta ezerosotasuna, mina nahiz tentsioa sorrarazi ohi dioten gorputz atalak ezagutzeko aukera emango digu.

Haurtxoa lau hankatan edo oinez hasten denerako, masajea ematen zertxobait jakitea oso baliagarria izango zaigu haurtxoak hartuko dituen kolpeak eta ikarak modu azkar eta eraginkor batez arintzeko.

Nola egunez, hala gauez, txupeteak, manta bero eta leunek, eta haurrak besarkatzen dituen jostailuek beren balioa dute; baina, egia esan, giza ukipen bero eta xamurraren, eta haurrak beharrezkoa duen konpainiaren ordezkio eskasak dira.

Praktikarekin, zuen seme-alabekiko ukipen premiak asetzen lagunduko dizuen eginkizun intuitiboa bihurtuko da masajea. Gainera, haurraren osasunari eta garapen fisiko zein emozionalari onura asko ekarriko dizkie.

Haurrak bere inguruarekiko izango dituen trukatzeko guztiak harremanen muskulatura ildaskatuan oinarrituko dira, eta horren arabera, gizakiak bere kortikalidadea egituratzen du (Arnold Cessell).

Muskulatura ildaskatu horretan, garapen batekiko bilakaera historiko osoa erakusten duen gihar babesa sortzen da. Wilhem Reich-ek garapen ontogeniko hori kontuan hartu zuen. Guk autoerregulaziorako eman zituen jarrabideak aztertuko ditugu.

Familia-ekosistema, oinarritzko prebentzioa, gorputzaren eskema, eta gorputz-kontrola aztertuko ditugu; hau da, psikomotrititatearen oinarriak.

Ukitzea, sentitzea eta emaitza kokatzea landuko ditugu.

Ukitu + sentitu = Kokatu



Arratsaldeetako saioak



**Arratsaldeko 16:00etan
Pedagogia Fakultatean**

Saio libreak.
Nahi duten guztientzat irekiak.

Uztailak 4, asteartea
Anorexia eta bulimia. Zer egin dezakegu hezitzaileok?
Elikadura portaeraren arazoak.

- * **Agurne JULDAIN.** Psikologoa.
- * **Maddi ARRAZOLA.** Psikologoa eta elikaduran diplomatua.

Uztailak 5, asteazkena
Antzerkia eskolan
“Niko eta Periko” antzezlanaren aurkeztuko dute eta ondoren elkarriketa egongo da. Zer egin, nola, zertarako... antzerkia eskolan?

- * **Joserra FACHADO.** Aktorea.
- * **Dabid ERRASTI.** Aktorea.



UEUREN ETENGABEKO PRESTAKUNTZA:

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAREKIN BATERA, 06/07 IKASTURTERAKO HONAKO ESKAINTZA LUZATZEN DIZUEGU:

GARATU plangintzan:

Psikomotrizitatea eta jolasa 0-3 zikloan (Gasteiz/Bilbo/Eibar)

Psikomotrizitatea eta jolasa 3-6 zikloan (Gasteiz/Bilbo)

Musika eta gorputz adierazpena lehen hezkuntzan (Lasarte-Oria)

Demokraziaren funtsak: Gizarte Zientziak, Geografia eta Historiaren irakaskuntzan. (Donostia)

Europako erreferentzi markoaren ekarpenak eta PORTFOLIOA (Bilbo/Donostia)

Europarren historia (Bilbo)

Inguruan dugun musika: jarduerak eta baliabide didaktikoak (Bilbo)

Irakasleen komunikazio-trebetasunak (Donostia)

Multimedia baliabideak musika gelan (Eibar)

Informatika "Band in a box" (Eibar)

Ikas-estiloen eta ikas-estrategien garrantzia hezkuntzan (Donostia)

IRALE plangintzan:

Gure Historia, Euskal Literatur lanen argitan.

Kontalari trebatzen

Irratia eskolan, egin eta hitz egin, internetez baliaturik.

Soziolinguistika nola irakatsi.

Interneten erabilera didaktikoa.

BLOG-ak: oinarriak esperientziak eta praktikak.

Ordenadorea eta interneten erabilera musika gelan.

Hizkuntza lanabesak amaraunean

Hezkuntzarako curriculum materialak interneten

Terminologia: Giza Zientzietako arloak

Terminologia: Natur Zientzietako arloak

Nola irakatsi euskara, bigarren hizkuntza dela.

Euskal Curriculum: zer da, zertan da, nola,...

Eta ikastetxeko prestakuntza proiektu berezituak, hezkuntza berriztatzekeo proiektuak, on-linezko ikastaroak, gai zehatzen inguruko hitzaldiak,...

Informazio gehiagorako:

Alberto De Abajo Gonzalez

943-821426

k.akademikoa@ueu.org

www.ueu.org



Udako Euskal Unibertsitatea

nolako ikasketak, halako etorkizuna

**2006-2007 ikasturterako eskaintza
HEZKUNTZA ALORREAN**

Formazio arautua

Irakasle Ikasketak: *(Jana utzi gabe 2. diplomatura ateratzeko aukera)*

- Haur Hezkuntza espezialitatea
- Hezkuntza Berazis espezialitatea
- Atzerriko Hezkuntza espezialitatea
- Heziketa Fisikoa espezialitatea
- Entzumena eta Mintzalra espezialitatea
- Lehen Hezkuntza espezialitatea

Psikopedagogian Uzentzia: *(bigarren zikloko lizentzia)*

On-line eta erdi presentziala, Bilbon nahiz Eskoriatzan

- Hezkuntzen Psikopedagogia
- Esku-hartze Psikopedagogia

Graduondoak

- Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologiak Formazioan *(Aditu titulus)*
- Hezkuntzen Kudeaketa *(Aditu titulus)*
- Prestakuntza Pedagogikoa *(Aditu titulus)*
- XXI. mendeko hezkuntza erronkak:
 - Kulturartekotasuna eta eleaniztasuna *(Master ofiziala) BERRIA*
 - Ikertzea hezkuntza aramuan *(Master ofiziala) BERRIA*

Informazio gehigarriak:



HUMANIA (Humanitate eta Hezkuntza Zientzen Fakultatea)
Dorretik ezker alif
20540 Eskoriatza (Bizkaia)
Telefonoa: 943 714157 • Faxa: 943 714002
e-mailu: sarriena@humania.edu